


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

POLITIKA ZIENTZIAKO ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA

2021-22 IKASTURTEA

FEMINISMOAREN BAITAN SORTUTAKO GATAZKA TRANS  
PERTSONEN ESKUBIDEEN AURREPROIEKTU-LEGEAREN  
INGURUAN.

IKASLEA: Arantza Martinez Munita

TUTOREA: Arantxa Elizondo Lopetegi

# AURKIBIDEA

1) Sarrera	2
2) Marko teorikoa	4
2.1 Feminismotik hurbilketa	4
2.2 “Pertsonala politikoa da”	4
2.3 Diskurtso feministak eta feminismoaren subjektu politikoaren bilaketa	5
2.4 Feminismo erradikalaren garapena eta transfeminismoarekiko gatazkak	9
2.5 Teoria queer-a, transexualitatea eta transfeminismoak	12
2.6 Eztabaidaren gako nagusiak Espainian: transexualitatea, politika feminista eta LGTBIQ+ak	15
3) Helburuak	18
4) Metodologia	19
5) Analisia	22
5.1 Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektuaren inguruan	22
5.2 Inkestaren analisia	35
5.3 Elkarrizketen analisia	48
6) Ondorioak	53
7) Bibliografia	55
8) Eranskinak	59
8.1 Eranskina 1: Inkesta	59
8.2 Eranskina 2: Inkestaren erantzunak	66
8.3 Eranskina : Elkarrizketa gidioa	86
8.4 Eranskina 4: Elkarrizketen transkribapena	89

# 1)SARRERA

Gaur egun pil-pilean dagoen gaia aztertuko da lan honetan, herrialde ezberdinetan, aurrerapen sozialekin batera, lehen munduko herrialde askotan transexualitatea eta genero identitatearen inguruko legeak egin dira. Hori izan da Espainiar Estatuaren kasua 2021 urtean Unidas Podemos eta PSOEn gobernaren baitan. 2021eko ekainean trans pertsonen benetako eta eraginkortasunerako eta LGTBI eskubideak bermatzeko lege-proiektua, hau da, “lege trans” bezala ezaguna egin dena onartu zen. Honako honek, tira bira ezberdinak ekarri ditu iritzi publikora eta postura oso ezberdinak daude gaiaren inguruan.

Aldiz, lan honetan, teorikoki ez dut hainbeste sakonduko eskuineko ideologiaren baitan, eta lehenik eta behin, feminismoa eta genero identitatearen baitan egingo dut azterketa. Behin oinarriak azalduta, bi mugimendu feminista zehatzetan atentzioa jarriko dut: historian zehar feminismo erradikalaren ibilbidea aztertuko dut, eta honen baitan gaur egungo testuinguruan honek izan duen bilakaera, izan ere, korrante honen baitan adar berri bat sortu da: feminismo erradikal trans baztertzailerak. Azken hauek uste dute emakume transak ez direla feminismoaren subjektu politikoak, eta ez direla emakumeak kontsideratu behar. Bestalde, beste muturrean *queer* feminismoa eta transfeminismoa bezalako mugimenduak ditugu, berriagoak direnak, izan ere, hauek 90 hamarkadan eratu ziren. Orduan, hauek oinarri gisa hartuta, analisiari ekingo diot.

Beraz, lana aurrera eramateko oinarritzko tresna bat testuingurua eta analisi egoki bat egiteko, “trans legea” izango da, honen puntu eta azpipuntu garrantzitsuenak aztertuz eta komentatuz, bigarrenik, interesgarria izango litzake komunikabide ezberdinetan azkenaldian gaiaren inguruan atera diren berrien azterketa egitea, gobernuan dauden alderdi politikoaren artean emandako ezadostasunak aztertzeke. Horrela ere, kaleetan eta sare sozialetan emandako polemikak aztertu ahal izango ditut.

Ondoren, inkesta baten bitartez interesgarria izango da orokorrean jendearen iritzia jakitea, horretarako inkesta bat prestatuko dut jakiteko gazteek zein iritzi duten trans auziarekiko eta feminismoaren baitan emandako zatiketarekiko.

Azkenik, gaia hurbilago aztertzeke, bi pertsona elkarrizketatuko ditut, bata feminismo klasikoago bat babesten duen eta bigarrena aldiz, militante transfeminista bat. Hartara, esperientzia pertsonaletatik eta hauen iritzietatik analisi mamitsuago bat egin ahal izango dut feminismo eta trans auziari dagokionean.

Laburbilduz, “lege transak” sortu duen polemika aztertuko dut, lehenik eta behin honen analisia eginez, agendan eta komunikabideetan izan duen oihartzuna aztertuz. Horretarako ere gazteen iritzia ezagutuko dugu inkesta baten bitartez, eta azkenik, bi sakoneko elkarrizketen bitartez gaia gertuagotik aztertu eta ezagutuko dugu. Beraz, hurrengo orrietan aipatutako guztiaren analisia burutuko dut.

Bestetik, hipotesiei dagokionez, hurrengoak dira formulatu ditudan hipotesiak:

H.1: Gazteen artean gutxi izango dira feminismo klasikoago bat edo trans baztertzailea defendatzen dutenak, hots, gehiengoa lege trans baten alde egongo da.

H.2: Askok ez dute jakingo lege transaren edukiaz eta ez dute alderdi legislatibo horren interesik izango.

H.3: Parte-hartzaileen alde batek elementuak eta jorrazeko gaiak falta direla usteko du lege transaren baitan.

H.4: Feminismo klasikoa eta transfeminismoa defendatzen dutenen artean ez da amankomuneko puntu esanguratsurik emango.

H.5: Feminismo klasikoagoak irain moduan kontsideratuko du TERF (*Trans Exclusionary Radical Feminist*/ Feminista Erradikal Trans Baztertzailea) eta ez dute haien burua TERFtzat hartuko.

H.6: Transfeminismo mugimendua ez da guztiz ados egongo lege transarekin nahiz eta agian lehen pauso moduan hartzen duen.

## 2)MARKO TEORIKOA

### 2.1 Feminismotik hurbilketa

Mugimendu feminista konplexu, plural eta askotarikoa da, ondorioz honen baitan talka ezberdinak ematen dira. Diskurtso ezberdinak topa ditzakegu emakumearen opresioaren inguruan emantzipaziorako giltza ezberdinak emanez. Baina batez ere, argi eta garbi gai garrantzitsuenetariko bat, honako hau izan da: zer da emakume izatea?

Feminismoak etengabeko transformazioa pairatzen duen mugimendu teoriko eta praktikoa da, beti kritika bihurkarietara irekia, imaginario politiko berriak eta ekintza estrategia berriak sortuz (Martínez-Bascuñan, 2020) Patriarkatua gaur egungo gizarte guztien estruktura da, instituzioetatik ere ezarria dena, gizonen nagusitasuna emanez emakumeen aurrean. Feminismoa emantzipaziorako ezinbesteko tresna da eta amaiera jarri nahi dio menderatze maskulinoari.

Errelato ezberdinak eman dira emakumeen identitatea definitu nahian. Feminismoa identitatearen alorrean kokatzen da diskurtsiboki, baieztatze eta baita problematizatzeko ere. Botere harreman bat ematen da “maskulino” eta “femeninoaren” artean lehenengo gailenduz, eta subjektu politikoak sozialki eraikitako rol horietan murgiltzen dira.

### 2.2 “Pertsonala politikoa da”

50. hamarkada aldera, Simon de Beauvoirrek “*Bigarren sexua*” (1949) idazten du, feminismo humanistaren jarraipena izan zena. Aldiz, hirugarren olatu feministararte (60-70eko hamarkadak aldera) itxaron beharko dugu emakumei eragiten dieten gako interpretatibo ezinbestekoak plazaratzeko. Hots, garai honetan konturatu ziren ez zegoela lengoai soziologiko zehatz bat emakumeen zapalkuntzaren problematikari erreferentzia egiteko, ondorioz, garrantzitsua zen kategorien inguruan mesfidati jokatzeko eta mugimendu feministaren baitan kontzientzia hartzea.

Kontzientziazioa lortu zen, lehen plano intimoan zeuden gai ezberdinak politizatu ziren. Honen baitan, Foucault-ek (1991) “Las redes del poder” izeneko lanean boterearen inguruko ikerketa iraultzaileak egin zituen. Autoreak dio boterea ezin dela inoiz han edo hemen kokatu, hau da, boterea zirkulatzen duen edo kate batean funtzionatzen duen zerbait bezala aztertu behar dela. Honekin batera, boterea sare bat bezalakoa den erakunde baten bidez erabiltzen eta gauzatzen den elementua dela dio, hau da, ezin dela inorren eskuetan iraunkorki egon. Botereak gizabanakoen artean zirkulatzen du, batzuetan batzuk dute eta beste batzuetan beste batzuek.

Gauzak horrela, “Ideologías y movimientos políticos contemporáneos” (2020) liburuako feminismo kapituluak, Mariam Martínez-Bascuñán idatzia, garai honetan publiko eta pribatu kontzeptuei esanahi berria ematen zaiola ziurtatzen du. Ereku pribatuko problematikak, ereku publiko eta demokrazietara jauzi ziren. Gainera, 60-70. hamarkadetan, politika erradikalaren garaia izan zen Estatuaren autoritatearen aurrean, mugimendu ezberdinak sortu ziren, hala nola, LGTB mugimendua.

Martínez-Bascuñán-ek (2020) dion bezala, kritika feministak ebidentzian jarri nahi du publiko/pribatu dikotomia mundu burgesean: publikoa eta maskulino arrazionala eta pribatu sentimental femenino bezala interpretatzen da. Honekin batera, lanaren inguruko zatiketa morala dator gaur egun arte diharduena. Aldi berean, Amelia Valcárcel-ek (2001) dio ezberdintasun “natural” bat ezartzen zaigu espazio eta funtzio batzuk ezarriz batzuei eta besteei. Emakumeei, funtzio sexualak eta erreproduziozkoak atxikituko zaizkie eta hauek instituzionalizatu egingo dira, modu honetan, zapalkuntza emanez.

Guzti honekin lotuta, historikoki, mugimendu feministaren eztabaida eta galdera garrantzitsuenetarikoa izan da agendarena, hau da, zeintzuk izan diren lehentasunezko gaiak agenda publikoan. Izan ere, emakumeei eragiten dieten arazoak banalizatu egiten dira eta soilik batzuetan lortzen dute inpaktu mediatikoa. 70. hamarkadatik aurrera, mugimendu sozialen indarrak ikusgarritasuna eskuratzen dute eta feminismotik, gaien txertaketa suposatu zuen agenda publikora, kategoria analitikoaren bertsifikazioa emanez, esate baterako “indarkeria” kontzeptuarena (Martínez-Bascuñán, 2020). Zerbait definitzea beti da gatazkatsua, baina kontuan izan beharra dago ere, definizioak sozialki eraikitzen direla. Aldiz, beharrezkoa zen definizio dominanteak zalantzan jartzea eta ikerketa eta lan feministen bitartez emakumeen pertzepzioa gradualki egokitu zen. Oraindik ere, feministek tentsioa pairatzen dute definizio dominentei dagokionez, eta testuinguru honetan, askotan, emakumeek beldurra sentitzen dute ez direlako errespetuz tratatzen haien esperientziez mintzo direnean eta askotan ez dituzte entzun ere egiten.

### **2.3 Diskurtso feministak eta feminismoaren subjektu politikoaren bilaketa.**

Berdintasunaren feminismoa edo feminismo humanista, konstruktibismoan oinarritzen da: *“Ez zara emakume jaiotzen, emakume izatera iristen zara.”* (Simone de Beauvoir, 1949) Honakoa izango litzateke XVIII.mendeko feminismo Ilustratua, kasu honetan, emakumeek, gizonezkoek zituzten aukera eta eskubide berdinak aldarrikatzen zituzten. Generoan ematen den ezberdintasun bat antzematen da, kontu biologikoetatik haratago. Horrela, generoa tresna diskurtsibo oinarritzkoena bilakatzen da analisi feministentzako. Generoak erreferentzia egingo dio kulturalki definitutako ezaugarri zehatzei eta hauek emantzipazio, garapen eta berdintasunerako oztopo izango dira.

Konstruktibismoaren ideia Simon de Beauvoiren *“Bigarren sexua”* (1949) lanetik dator, oinarria izan zena gainontzeko feminismo korronte guztiak garatzeko. Autoreak bi kategorietan oinarritzen du honako ideia hau: trszendentzia eta immanentzia. Trszendentzia, bere izaera definitzeko gai den subjektutasun askea izango da, munduan zehar autonomiaz mugitzen eta zabaltzen dena. Patriarkatuak soilik gizonezkoek izaten die bizitza trszendentzia izaten, izan ere, maskulinitateak hori dakar, existentzia indibidual eta subjektutasun askea, zure patuaren jabe izatea alegia. Aldiz, patriarkatuak, emakumea immanentziara mugatzen du, honek objektu bezala bizitzea ezartzen zaio, eta ez ordea, subjektu moduan. Horrela, emakumeei rol sozial zehatzak ezartzen zaizkie eta haiekiko espektatiba eta itxaropen batzuk ezartzen dira. Kultura patriarkalean, emakumea “misterioa” da ikuspegi maskulino batetik, zein nahi bere gaitasunak, beti baloratuko da lehenago emakume izateagatik. Txikitatik

ikasten dute besteen desireri atentzioa jartzen eta hauek betetzen, subjektu indartsu bat maitatzen. Horregatik, emakumeen arazo nagusienetako bat honakoa da: patriarkatuak emakume sumiso eta menpekoak sortzen ditu.

Feminitateari dagokionez, Simone de Beauvoirek dio, honek sortzen dituen espektatibak eragina dutela emakumeen giza gaitasunaren garapenean. Emakume askok beldurra adierazten dute arrakastaren aurrean, gatazka bat suposatzen duelako haien feminitatearekin, alegia, ez datorrelako bat ezarri zaizkien rol eta espektatibekin. Sistema patriarkalak emakumeen ekintza kreatiboa murrizten du zaintza lan eta etxeko lanetara mugatuz, horrela, emakumeen aspirazioa besteak zaintzea bilakatzen da. Patriarkatuak jarrera femenino batzuk bultzatzen ditu gizonezkoen mesedetan, haien behar sexual eta etxekoak asetzeko. Emakumeari bere subjektutasuna ukatzen zaio sistema patriarkalaren bitartez, pasibo, menpeko eta ahul bilakatu eta irakatsiz autogarapen indibidualaren mundua ez dela haientzat, lehenetsua erreproduktiboa behar duela izan modu honetan emakumea esklabu bihurtuz. Baina emakumeak ez dira objektuak, subjektuak dira eta trszendentzia hori eskuratu nahiko dute gizonezkoen moduan.

Genero kontzeptua analisisian sartu zenean lortu zen determinismo biologikoaren kontra egitea, “genero” eta “sexu” kategorizazioa sortuz eta bereiziz. Modu honetan, ulertzen da “maskulinoa” eta “femeninoa” eraikuntza sozialak direla eta erreferentzia egiten dietela ezarri diren arau kulturaleri. Simone de Beauvoirek autoritate biologikoa gezurtatu nahi du feminismo igualitarista eta humanista bat aldarrikatuz.

Laburbilduz autoreak dio, emakumea ez dela produktu natural bat, eraikuntza sozial bat baizik, eta beharrezkoa dela emakumeak ere trszesnditzea. Feminitatea errepresio iturri moduan ulertzen du. Emakumeei ezartzen zaizkien rol sozialak gizonekoenak baino baxuagoak dira, eta, ezarritako arau horien ondorioz, emakumea ez da iristen gizona bezalako gizakia izatera.

Ondoren feminismo ginozentrismak kritika egingo dio feminismo humanista honi eta subjektu politikoaren inguruan ere teorizatuko du. Alonso Salazar-ek (2014) dioen bezala, hirurogeiko hamarkadaren hasieran sortu zen korrante hau, eta Dorothy Smith soziologoa da horren adierazle nagusia. Soziologoak emakumeen esperientziei, interesei eta balioei buruzko teoria sozial bat diseinatu zuen. Soziologa feminista honek indar soziokulturalek emakumeen bizitza nola osatzen eta zapaltzen duten ulertu nahi du, ezagutza horrek emakumeen baldintza material eta sinbolikoak eralda ditzan. Horrela, generoa kategoria teoriko-analitiko gisa ulertzen da, eta antolaketa eta funtzionamendu soziala nahiz ezagutzaren eraikuntza prozesuak egituratzen ditu. Gainera, feminismo ginozentrismak dio, feminismo humanistak ez duela patriarkatua zalantzan jartzen eta beste garai batzuetara egokituta dagoela. Izan ere, gizakiaren definizioa problematizatu beharra dago eta kategoria ezberdinak zalantzan jarri behar dira, esaterako trszendentzia eta immanentziarenak. Giza potentzialaz ari gara. Honekin lotuta, tradizionalki gizonek bakarrik gozatu eta garatu dute honako hau, giza potentziala alegia. Horrela esanda, badirudi emakumeek historian zehar egin duten lana implizituki hondatzen dela. Horregatik bszignifikazio estrategia jarraitzea ezinbestekoa

izango da, kategorien errebisioa alegia. Kritika erradikalagoa gizonen menperatutako gizarteri eta balore maskulinoei. Bestalde, atentzioa jartzen da feminitate eta arrakastaren arteko talkan; gatazka ematen bada, izango da arrakasta eta kanonak zalantzan jarri behar direlako. (Martínez-Bascuñán, 2020).

Gizakiaren definizioa zalantzan jarri behar da, izan ere, horrek transzedentzia gizonari bakarrik aitortzen diolako. Feminista hauek gizonezkoen nagusitasuna identifikatzen hasiko dira ustez neutral eta unibertsalak ziren gai eta esparruetan. Hartara, binomioak zalantzan jartzen dituzte, espiritu/gorpuz, natura/kultura... etb. Beraz, kultura maskulinoak goraiatzatzen den kultura patriarkalaren transformazio totala aldarrikatzen da.

Bestalde, errekonozimendu bat egin beharra dagoela diote korrante honetako autoreek, hau da, ezin dela estruktura patriarkala zalantzan jarri, lehenik eta behin emakumearena izan den esfera bat aztertu gabe. Emakumeek egindako lanak aitortza bat behar dute.

Sailkapen honetan, guztiz beharrezkoa da feminismo beltza eta interseksionalitate kontzeptuaren aipamena egitea, izan ere, guztiz iraultzailea izan zen honako hau. Angela Davis feminismo beltzaren aitzindarietako bat izan zen "*Woman, Race and Class*" (1981) obrarekin. Horrela, ikuspuntu interseksionala ematen zaio feminismoari, aldagai gehiago kontuan hartuz analisisan, hala nola, klasea eta arraza. Feminismo beltza jaiotzen da feminismo zuri burgesak ez zituelako kontuan hartzen horrelako elementuak, analisisan guztiz beharrezkoak zirenak. Feminismoaren korrante honetako pentsalari eta aktibista nagusiek, hala nola Audre Lorde eta Assata Shakur adierazi zuten emakume beltzek egoera bortitzei egin behar izan ziotela aurre eta haien egoera bere etniagatik larriagoa izaten dela haiekiko zapalkuntza areagotuz. Mugimenduak AEBen du jatorria, izan ere, herrialde honetan beltzen eta batez ere emakume beltzen kontrako zapalkuntza eta indarkeria historikoki oso larria izan da. Bazterte bikoitza pairatzen zuten emakume hauek, alde batetik, segregazioaren kontrako mugimenduek gizon beltzak soilik hartzen zituzten kontuan eta haiei ematen zitzaaien lehenetsia, eta bestetik, 70.hamarkadako feminismoak fokoa emakume zurietan jartzen zuen, emakume beltzak baztertzuz (Velasco, 2008). Bestalde, feminismo beltza, esklabismoatik datorrenez, zuria ez bezala, esan daiteke gogoeta gunea askoz ere inklusiboagoa da, horrela errelato berriak sortuz eta "emakume" kontzeptuari esanahi berria emanez..

Interseksionalitatearen kontzeptua, aldiz, 80ko hamarkadan sortzen da Kimberlé Crenshaw-ren esku eta feminismo beltzak honako hau adoptatu zuen, interseksionalitatearen kontuan hartu behar dira menderatze sistema/eredu ezberdinak. Feminismo beltzarekin lotuz, emakume beltz hauen ikusezintasun juridikoa salatzen zen eta honetarako, interseksionalitatea erabili zen beste tresna batzuekin batera. Beraz, garrantzitsua da injustizia anitzak sortzen dituzten esparruak identifikatzea eta analisisan kontuan hartzea. Interseksionalitateak diskriminazio modu ezberdinen aurka egiten du. Feminismo eraginkor batek ezin ditu pribilegiatuak pribilegiatuago egin, feminismo eraginkor batek sexismo, arrazakeria, homofobia, transfobia, inperialismo, kapitalismo, burgesia... etben aurka borrokatu beharko du ezinbestean (Viveros, 2016).



Ondoren, 90eko hamarkadan Judith Butthlerren eskutik genero dekonstrukzioa eta queer feminismoa azaltzen zaizkigu, bere obra nagusia “*Gender Trouble*” (1990) izanik. Teoria feministak “genero” kategoria asmatzen du “Zer da emakume izatea?” galderari erantzuteko. Galdera hau formulatzen da determinismo biologikotik ihes egiteko, izan ere, honek haien patua finkatzen zuen, horregatik, generoa tresna teoriko bilakatu zen analisisian. Zentzu honetan, sexua kategoria aldaezin gisa “versus” generoaren artean, errealitate sozial kontingente bat azaltzen duen kategoria gisa, zalantzan geratuko da.

Konstruktibismoak eta feminismo humanistek zioten emakumea gizona bezain kapaza zela esparru guztietan, baina, konstruktibismoak ez du “sexu” kategoria zalantzan jartzen genero kulturalaren aurrean, sexua zerbait ukaezin moduan azaltzen da. Gauza bera ematen da 70. hamarkadako feminismoarekin, honek ere generoa, sozializazio berprozesu moduan ulertzen du. (Martínez-Bascuñán, 2020). Horrela, gorputzaren esanahi politikoaren inguruko ikerketa asko hasi ziren, ondorengo feministak gorputza aztertzen hasi ziren sexualitate eta aldagai anatomikoei garrantzia ematen haien diskurtso eta analisisietan. (Martínez, 2015).

80.ko hamarkadan feminismoa krisian sartzen da kritika ezberdinak direla medio. Ikerketa multikultural, postkolonialista eta feminismo beltzak leporatzen dio tendentzia feminista nagusiak guztiz etnozentrismoak direla eta klasea eta arraza bezalako aldagiak alde batera uzten dituela. (Alcoff, 2002). 90. hamarkadan sexu, arraza eta klase sozial artean ematen diren ezberdintasun guztiak aztertuta, autore feminista askok pentsatu zuten “genero” kategoria problematikoa zela definitzeko zer zen emakume izatea, izan ere, honen bitartez, identitatearen esenzializazioa eman daiteke eta hau arriskutsu bilakatu. (Gamba, 2008).

Butlerrek (1990) bere teorian marko foukoltianoa erabiltzen du, sexu/genero binomioa problematizatzen du eta heterosexualitate normatiboaren ekoizpenean eta erreprodukzioaren funtzio ideologikoa azaleratzen du. Butlerrek ideologia/zientziaren arteko bereizketa arbuiatzen du, sexu/genero bereizketa horrek benetan episteme gisa funtzionatzen duela baieztatzeko, hau da, aldaketarik gabe geratzen den ezagutza-ordena gisa.

Butlerrek, aldi berean, sexu biologikoak kategoria gisara historia duen eta genealogia bat existitzen den sexu/genero binomio horren baitan aztertzen saiatzen da, eta horrek sexuaren errealitate itxuraz natural hori beste interes politiko eta sozial batzuen menpe dagoen zientziaren kontu baten bidez diskurtsiboki gertatzen den galdetzera eramango du. Beraz, autorearen aportazioa guztiz iraultzailea da pentsamendu feministarentzako, hots, lehen aldiz jartzen da zalantzan “sexu” kategoriaren eraikuntza kulturala “genero” kategoria moduan. Generoa kultua bezala ulertzen zen eta sexua zerbait natural moduan, “episteme” baten parte bezala eta honek ez du uzten ikusten, sexua errealitatean beti izan dela genero. Beraz, autoreak genero nozioa deseraikiko du sexu biologikoaren kontzeptua desnaturalizatzeko eta heterosexualitate normatiboa kritikatzeko. Horrela ere, hemendik aurrera, feminismo korrante gehiago sortzen dira, betiere kritika eta transformazio erreflexiboetara irekiak.

## **2.4 Feminismo erradikalaren historia eta feminismo trans baztertzailaren garapena gaur egun honen baitan eta transfeminismoarekiko gatazkak.**

Gaur egungo testuingurua ulertzeko, beharrezkoa dugu feminismo erradikalaren historia apur bat aztertzea eman den garapenaren inguruko analisia egin ahal izateko. Izan ere, feminismo erradikaletik dator aztertuko dugun feminismoaren adarra, feminismo erradikal trans baztertzaila, alegia. Feminismo erradikalarentzako, ezberdintasun sozialen oinarria patriarkatua izango da, opresio sistema bat da, nun gizonezkoak emakumearen gainetik kokatzen diren hierarkikoki emakumea zapalduz. Mugimendu feminista honek gizartearen berreraikitze eta antolaketa erradikalki ezberdina aldarrikatzen du, batik bat gailentasun maskulinoaren guztizko ezabapena emanez. Feminismo erradikalak aldi berean dio, emakumeek pairatu ditzazketen beste ezberdintasun batzuk kontuan hartu beharrekoak, hala nola, arraza, klasea eta orientazio sexuala bezalako aldagaiak. (Posada, 2020).

Jatorriari dagokionez, feminismo erradikala AEBen jaio zen mugimendu gisara, 60ko hamarkada amaieran 70.eko hamarkada hasieran. Kate Millet eta Carol Hanisch bezalako pentsalariek “Pertsonala politikoa da” (1969) perpausa aldarrikatu zuten, menderakuntza patriarkal esfera berriak identifikatu zituzten lehenago planteatu ez zirenak eta guztiz iraultzaileak izan zirenak. Teoria politikoa asaldatu duten guztiz, botere harremanak aztertu zituzten beste espazio batzuetan, hala nola, familia eta sexualitatearen baitan kokatzen ziren espazioak. Bestalde, kontsideratu zuten gizonezko guztiek gizonak izateagatik onura ekonomikoak, sexualak eta psikologikoak lortzen dituztela, ez soilik eliteak beste korrante batzuk planteatzen duten moduan, guzti hau sistema patriarkalaren eraginez ematen da ezinbestean. 60ko hamarkada amaieran, sistema kapitalistarekiko nekea eta atsekabea nabaria zen garaiko gizartean. (Puleo, 2016).

Puleok dioten moduan, emakumeak ezkerreko mugimenduetan parte hartzen hasten dira, emakumeak etxeko roletik atera ziren 50eko hamarkada eta gero. Aldiz, emakume horiek ez ziren gustora sentitzen horrelako espazioetan botere-harreman argiak ematen zirelako. Antolakundeak gizonek menderatzen zituzten guztiz, hauek kritikoak ziren AEBen ematen zen egoerarekin eta kulturarekin, baina aldi berean sekxismoa onartzen zen eta emakume taldeak berehala ohartu ziren zapalkuntzetaz. Ezkerreko antolakundeetan ematen zen emakumeen zapalketaren ondorioz, emakume askok eztabaidatu egin zuten gaiaren inguruan, ea autonomoki funtzionatu behar zuten edo ez beste eztabaida batzuetan eta antolakunde berrietan. Feminismo erradikala munduan zehar zabalduz joan zen hemendik aurrera.

Feminismo erradikala batez ere sexuen arteko opresioan zentratzen da. Ondorioz, feminismo erradikalaren marko teorikoa 70.eko hamarkadan argitaratutako bi obra nagusietan oinarritzen da: Kate Milletten “Política sexual” (1970) eta Shulamith Firestoneren “La dialéctica del sexo” (1970). Bi obra horiek ezinbesteko kontzeptuen aportazioa egin zuten feminismo erradikalerako, hala nola “patriarkatua”, “generoa” edo eta “kasta sexuala”. Bi obrak marxismo, psikoanalisi eta anticolonialismoaren jakintzak erabili zituzten. Patriarkatua menderakuntza sistema gisara definitzen da, menderakuntza sexualean oinarrituta, eta gero honako hau, gainerako menderakutzak dakartzki berarekin, hala nola, klase eta arraza menderakuntza. Feminismo erradikalarentzako generoak egiten duena zera da, feminitatearen

konstrukzio sozial bat, eta kasta sexualak erreferentzia egiten dio emakumeek bizitako opresio esperientzia amankomunekoari. Korrante feminista honen helburu eta zantzu ideologiko nagusiak honakoak dira: kolektibismoa feminismo liberal eta indibidualistaren aurrean, “pertsonala politikoa da”, izan ere, feminismo erradikalarentzako sexismoa ez da soilik inposizioen bitartez ematen, ohituretan, edertasun kanonetan eta beste hainbat elementuetan oinarrituta dago. (Rivera, 2019).

Hartara, esparru pribatuan ematen diren auziak, publikora pasa behar dira, pertsonala dena politikoa baita. Hirugarrenik, patriarkatuan oinarritutako foko historikoaren baitan egiten dute analisia sexismoaren oinarri argia baita, betiere kontuan hartuz aurreko belaunaldiek utzitako jaraunspen material-kulturala. Aldarrikatzen dute biraketa identitate politikorantz, hau da, kontzientzia feminista hartzea. (Prats, 2019)

Prats-ek dioten moduan, feminista erradikalak emakumeen gorputzaren merkantilizazioaren kontra kokatuko dira, hala nola, prostituzio, pornografia eta haurdunaldi subrogatuaren kontra. Bestalde, generoaren abolizioa izango litzateke beste ezaugarri garrantzitsu bat, hauentzako, sexua errealtate biologikoa izango litzateke, aldiz, generoa, arau multzo bat, sinispen eta jokatzeko moduekin zerikusia dutenak alegia. Generoaren ezaugarri horiek jaiotzen garenetik ezartzen dizkigute hezkuntzaren bitartez eta baita sozialki ere. Guzti hau kontuan hartuz, zein sexurekin jaiotzen garen, orduan genero rol bat edo beste ezartzen zaigu. Aldarrikatzen da berdintasuna/ekitatea ondorio bezela eta ez helburu gisara.

Historian zehar, eztabaida ezberdinen ondorioz feminismoaren baitan korrante ezberdinak sortu eta garatu dira, hala eman da ere feminismo erradikalean, nun aztertuko dudan korrantea eratu den, feminismo erradikal trans baztertzailearena hain zuzen ere.

Feminista erradikalak, liberalak ez bezala, arazoaren sustrailaren bila jardun zuten, sexismoaren sustraiaren bila legeetatik abiatuz. Gainera, feminismo erradikalak esparru pribatua erreparatzen eta ikasten du, bertan ematen diren opresioei aurre eginez. Hortik dator Kate Millet autorearen “*Política Sexual*” (1970) obran plazaratzen den “pertsonala politikoa da” esaldia. Modu honetan problematika espazio pribatura ere zabalduz. Bestalde, garrantzitsua da ere ulertzea feminismo erradikalak marxismoaren influentziak dituela, horregatik, gaur egun marxismoaren ezaugarri horiek mantentzen ditu korronteak eta beste batzuk azaldu dira historian aurrera egin hala, esaterako honako hauek: antikapitalismoa, ekologismoa, antimilitarismoa eta antiarrazismoa (Espasandín, 2018).

Feminismoa aipatu moduan, mugimendu plural eta askotarikoa da, baina feminismoaren adar batzuetatik oraindik ez dira guztiz barneratu emakume transexualen eskubideen bermea (Fernández, 2012). Aldiz, feminismoa transformazioak jasaten dituen mugimendua denez, komenigarria litzateke aztertzea kronologikoki emandako aldaketak. Gatatzaren konplexutasuna antzemateko, adibidez, esan daiteke emakume trans kolektiboaren barruan, bazterketak ere ematen direla, esaterako, badaude emakume trans batzuk zeintzuk ez dituztenak emakume kontsideratzen emakume ebakuntzarik egin ez dutelako. Auzia ez da

dirudien bezain erraza, konplexutasunez beterikoa da eta asko zailtzen da feminismoaren subjektuaren auzia. “Feminista klasiko” askorentzat TERF (feminista trans baztertzailleak) terminoa iraingarria izan daiteke eta honako hau desmontatzen ahaleginu dira. Aldiz, haietako askok ahaleginak egin dituzte emakume transexualen genero identitatea ukatzeko, esanez, emakume transexualek ezin dituztela emakumeen komunak erabili AEBen bezala, edo eta emakumez jantzitako gizonak direla intentzio txarrak dituztenak benetako emakumeekiko. Honi loturik, Espainiar Estatuari begira, aipatu beharra dago gatazka hau herrialde anglosajoietan sortzen dela, eta gero eztabaida zabaldu egiten dela, hala nola, Espainiar Estatura. Argudio biologizistak erabiltzen dira zenbait postura justifikatzeko (Trujillo, 2009).

Gatazkan murgilduz, komenigarria da jakitea, zeintzuk diren gatazka puntu garrantzitsuenak transfeminismo eta feminismo erradikal trans baztertzaillearen artekoak. Hasteko, generoen existentzia da transfeminismo eta feminismo erradikala banatzen dituen. Transfeministentzako ez dira generoak opresio patriarkalen iturri, baizik eta generoaren sistema binarioa “gizon”/“emakume” eta genero/sexu artean egiten den atxikimendua. Horrela, transfeminismoak defendatzen du identitate bezain genero ezberdin eta anitzak egon behar direla. Aldiz, feminismo erradikalak generoaren abolizioa aldarrikatzen du. (Solá, 2013).

Transfeministek kontsideratzen dute gizarteak pribilegiatzen dituela jaiotako generoarekin (esleitutakoa) identifikatzen diren pertsonak, hots, cisgeneroak diren pertsonak. Sistema binarioa izanda (gizon/emakume) beste guztiak baztertu egiten direla dio transfeminismoak. Transfeministentzat generoa ez da ez zerbait positiboa ezta negatiboa ere; generoa nolakotasun pertsonal eta indibiduala da, pertsona bakoitzak antzematen duen kategoria neutroa, subjektiboki, eta honako honek ezin du mugatuta egon “maskulino” eta “femenino” kategorietara. Transfeminismoa beraz, sistema binarioaren aurka kokatzen da eta genero anitz ezberdinak onartzen ditu, hala nola, genero fluidoak, intergeneroak, demigeneroak.. etb. (Fillloll, 2016).

Honekin batera, autoreak dio transfeminismoak binarismo eta gaitzespenetik askatu nahi ditu emakumezkoak eta baita gizonezkoak ere. Horregatik, emakumeen askapenerako genero eta rol esteriotipikoak ezabatu behar dira. Mugimenduak defendatzen du feminismoaren subjektuak ez direla soilik emakume cisgeneroak, feminismoaren baitan cisheteropatriarkatuak zapaltzen dituen emakume transak eta gainontzeko pertsonak kontuan hartu behar dira, izan ere, hauek borrokaren parte dira.

Honen harira, radfem-en (feminista erradikalak) ikuspuntua guztiz kontrajarria da. Honek dio, ezin dela genero esteriotipoen aurka borrokatu generoa ezabatu gabe. Feminista erradikalentzat generoa ez da zerbait neutroa transfeminismoak dioten moduan, baizik eta zerbait zuzenki negatiboa, patriarkatuak eraikitako opresio bidea emakume jaio direnen aurka erabilia. Feminista erradikalentzat, patriarkatuaren opresioa sexuala da, eta jaiotzatik ematen da emakumeen kontra. Hortik aurrera, patriarkatuak kultura eta feminitatearen bitartez, emakume izanda, sumisioa, zaintza lanak eta objektutasun sexuala ezarriko zaizkio.

Transfeministentzako nahiz eta biologikoki emakume ez jaio emakume izan zaitezke, izan ere sexuak ez du harreman aurre zehazturik gorputzaren kategoria sozialarekin edo norberaren identitatearekin (Gambero, 2016).

Bestalde, feminismo erradikal trans baztertzailarentzako ez da egia emakume transexualak opresio bikoitza jasotzen dutela (transexual izateagatik eta emakume izateagatik), diotelako biologikoki gizon jaiotzea delako (Solana, 2019).

Azaldutako guztia dela medio, tentsioa sortu da azkeneko urteetan kolektibo transexualean, horregatik, kolektibotik TERF akronimoa erabiltzen da feminista erradikal trans baztertzailak izendatzeko. Gainera diote, jaiotzaz sexua asumitzen bada, honek zailtasunak ekarri ditzake trans pertsonen trantsiziorako, zerbitzu medikuak askok guztiz beharrezkoak baitituzte. TERF askok emakume transexualei leporatzen diete feminitateak ezartzen dituen rol zapaltzailak jarraitu nahi izatea.

Laburbilduz, aipatutakoak izango lirateke bi korronteen arteko eztabaidagune eta desadostasun nagusienak. Azken urteetan areagotu egin dira eta egunerokotasuneko gaia bilakatu da sare sozial eta komunikabideetan radfem terf eta transfem en arteko gatazka batez ere Espainiar Estatuko Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektuaren egitea dela medio.

## **2.5 Teoria queer-a, feminismo queera, transexualitatea eta transfeminismoak.**

Holly Lewis-en "La política de todes" (2020) liburuan, queer teoriaren harira, feminismoaren barruan "identitatearen politika" akats politiko bat da, gizabanako edo talde batek ikuspegi zehatz bat azpimarratzen duenean, hala nola pertsona bat identifikatzen zaion taldearen esperientzia bere gain hartzera murriztea, edo talde bateko edozein gizabanako talde horren ordezkari gisa automatikoki tratatzea. Horrela, queer teoria, teoria post estrukturalista bat izanik, ikuspegi oso ezberdin bat izango du honen inguruan. Hauek diote, diote identitatea, kategoria kontzeptual gisa, diziplina-tresna bat dela, niaren arintasuna "normatibitate" politiko otzan kokatzen duena. Queer subjektuak anitzak dira, baina genero-diziplinaren ikuspegi kolektiboa dute, kohesio politikorako oinarria osatzen duena. Azken batean, queer teoria identitate politika *anti-identitarioa* izango litzateke. Ezberdintasuna sistematikotzat hartu nahi baduzu, banakako pentsamendua gainditu behar duzu. Ezagutza ikuspuntu baten barruan badago, ikuspuntu batek zehazturik egoteko gai izan ordez, orduan ez da posible ezagutza sistematikoa, eta, ondorioz, desberdintasunari ezin zaio modu sistematikoan aurre egin.

Autoreak dioten bezala fokalizazio hauek objektu ezberdinak hartzen dituzte haien epistemologiarako: "sistema" zentzu feministan patriarkatua izango da eta aldiz, queer teoriaren baitan, sistematikoa dena, sistemaz baliatzen direnak nahita mantentzen dituzten diskurtso-egiturak. Queer teoriarentzako, sistemarekin amaitzea ez da izango politika identitario berriak eraikitzea, baizik eta, aldaketa ideologiko abstraktu baten eskari kontzientea. Aldaketa diskurtsiboetarako borroka da, aldaketa kolektiboak eman daitezen

lengoaian. Indarkeria sistematikoa erabat ideologikoa denez, terminologia egokia aukeratzea ekintza politiko bihurtzen da eta desegokia erabiltzea indarkeria ideologikoko ekintza batean.

Hirugarren olatuko feministek mantentzen dute homofobia, sexismoa eta arrazakeria sistematikoak direla, hots, ez direla eraso indibidualak. Gainera diote, sistemak genero injustiziak sortzen dituela, eta hauek sistema sozialaren ezaugarri bihurtzen direla aldi berean. Queer eta feminista aktibistek sistema baten kontrako borroka aurrera daramate, baina batzuetan ez da oso argia izaten sistema kontzeptua ere.

“Queer teoria, bere erro fukoltianoetan inklusibitatearekin konpromezua du. Aldarrikatzen den lengoaiak askotan, interseksionalitatearen analisia zailtzen du konplexu bilakatuz. Honekin batera, kontuan hartu beharrekoa da, politika queer hegemonikoak mendebaldean eta AEBen garatuak izan direla eta hauek internazionalizatu ezker, politika inperialistetan bilakatuko dira mendebaldeko eta AEBko zantzu argiak baitituzte. Genero identitate ez normatiboak mundu osoan zehar existitzen dira, eta historian zehar ere existitu izan dira. Lengoaia eta identitatea izan dira AEBeko Queer pentsamenduaren politikaren oinarria, baina internazionalki zantzu batzuetan aldaketak eman dira.” (Lewis, 2020).

LGTB mugimenduari dagokionez, aurrerakuntzak eman diren arren, pertsona transexualen suzidio tasak gora egin du azkeneko urteetan. Queer eta trans estatusak eragina du emakume izatearen zentzuan, eta, askotan, generoak eta klase-antagonismoak markatutako lanean dauden borrokek islatzen ditu. 70eko hamarkadan, generoa eguneroko bizitzako gorputz-adierazpena zen, eta ezin zen politikoki eztabaidatu, eta gauza faltsu gisa baztertu. "Queer" guztia desordena biologiko bihurtu zen, eta "queer" hitzak gizarte-rolak zalantzan jartzen zituen edozer besterik ez zuen esan nahi. Queer kontzeptua sortu zen identitate homosexual "gay" eta "lesbiana" normatiboekiko distantzia bat jartzeko. Generoari buruzko feminismo erradikalaren debekua gogoratu, "lesbigay" hitzak trans pertsonak ezabatzen zituen eta hori ez zen halabeharrezkoa, bazterketa nahita egiten zen. Testuinguru honetan, pertsona intersexual askok kolektiboan sartzeko saiakera egin zuten argudiatuz, "haiena ez zela aukera bat, baizik eta baldintza fisiko bat jaiotzatik emandakoa." Kolektiboaren letrak gehituz joan ziren, baina pertsona askok oraindik baztertuta jarraitzen zuten, beraz, queer kontzeptua "aterki popular" bilakatu zen zentzu honetan, antagonismoaren isla, bi kategoria polarizatu ziren: heteroak eta queerrak.

XX.mendeko queer teoria, feminismo erradikalaren politika anti-generoaren kontra jaiotzen da. Emakumeak jaraunspen biologiko berezia zuten pertsonak ziren, patriarkatuaren indarkeria jasaten zutenak eta feminitatea emakumeak menderatuak edukitzeko arma paregabea zen patriarkatuarentzat eta generoa eraikuntza kulturala kontsideratzen zen, hau da, ideologia modu bat, ondorioz, zerbait ez naturala moduan hartzen zen. Feminismo erradikalaren helburuetako bat, emakumeen gorputza femeninotasunetik askatzea zen. Beraz, femeninoki jokatzeko zerbait erreazionarioa zen, antifeminista eta alienatzailea. Lortu nahi zena mundu aske bat zen, generorik gabekoa alegia. Aldiz, queer teoriak buelta eman zion

gidoiari: generoak eraikitzen zuena sexua zen, eta errepikapenaren bidez ematen zitzaion izena errealitate sozialean.

Feminista erradikalek eta queer aktibistek amankomunean zutena zera zen, kontsideratzen zuten generoa eraikuntza soziala zela. Feminismo erradikalak generoa patriarkatu barneratu baten adierazpentzat hartzen du, eta gorputza gertaera erreduziezin gisa ikusten du, non gizonezko eta emakumezkoen gorputzen arteko bereizketak eguneroko bizitzako dinamika politikoak eraikitzen dituen. Esaten zuten emakume izateak zerikusi zuzena zuela ugalketa-organo espezifikoekin, eta horrek trans politikekin gatazkan jarri zituen. Horrela, feminismo erradikalaren baitan, beste adar bat garatu zen, feminismo erradikal trans baztertzaila alegia. Hauentzako emakume transak ez ziren emakumeak, eta korrante honetako autore askok zioten gainera, gizonik bortitzenak zirela emakumeen gorputzak kolonizatzen zituztelako (Jeffreys, 2014). Horrela, korrante honi TERF deitzen hasi zitzaion. Hortik aurrera, gatazka handia ematen da eta areagotzen da TERF eta emakume transen artean, batez ere TERFek oztupoak jarriz eskubideei dagokionez emakume transexualei. Aldiz, queer pentsamenduak transen postura babesten du (Duval, 2021).

Transfeminismoak, feminismo klasikoaren subjektuaren zabalpena egiten du, eta beste subjektu batzuk sartzen ditu honen barruan, hala nola, emakume cisgeneroaz gain, sistema patriarkalaren zapalkuntzak jasan behar dituzten beste subjektu guztiak. Transfeminismoa, feminismoaren hirugarren olatuaren baitan kokatzen dugu eta esan daiteke ere, mugimendu honek queer teoria eta LGTB mugimenduaren eraginak jaso dituela, batez ere, transgenero ikuspegitik. Aldi berean, beste motatako eraginak ere jaso ditu, esaterako, antiarrazistak, postkolonialak eta segregazio sozialaren abolizioa bilatzen duten giza mugimendu eta mugimendu politikoak (Gil eta Orozco, 2012).

“Transfeminismo” kontzeptuak ez du soilik emakumearen askapena bilatzen, hortik haratago doa, transfeminismoak dio generoa eraikuntza sozial gisa ulertuta, opresiorako tresna dela sistema cisheteropatriarkalarentzako. Erresistentzia mugimendua da, eta generoa botere sistema moduan ulertzen du, nun gorputzei mugak ezartzen zaizkien ezarritako orden sozial zehatz batera egokitzeko. Diana Couvant eta Emy Koyama izan ziren mugimenduaren bultzatzaile nagusiak eta akademian sartzeko ahalegina egin zuten. Azken hamarkadetan, zalantzan geratu zen emakume guztiek esperientzia bera dutela, lesbiana eta trans pertsonen parte-hartzetik abiatuta mugimenduaren barruan. Ahots berriak sartzeak feminismoa bera etsiarazten du eta transfeminismoa sorrarazten du. Transfeministek espero dute beren esperientziak feminismoaren parte gisa onartzea; mugimendu feminista erradikalarekin eztabaida nagusietako bat da. Hala ere, bai feminismoak bai transfeminismoak genero-rol tradizionalak askatzearen alde egiten dute, eta, aldi berean, biologia deterministaren aurka borrokatzen dute. (Gil eta Orozco, 2012).

## 2.6 Eztabaidaren gako nagusiak Espainian: transexualitatea, politika feminista eta LGTBIQ+ak

Espainian “lege trans” deiturikoaren aurreproiektua aurkeztu da 2021ean, honi dagokionez, eztabaida ezberdinak sortu dira, eta zenbait puntu gatazkatsu bilakatu dira, transexualitate, politika feminista eta LGTBen baitan alegia.

2021 legearen aurrekaria 2007an onartua izan zen. Pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legearen xedea da Erregistro Zibilean pertsona baten sexuari buruzko inskripzioa aldatzeko baldintzak arautzea, baldin eta inskripzio hori ez bazetorren bat haren benetako genero-identitatearekin, bai eta izen propioa aldatzea ere, erreklamaturako sexuarekin bat etor ez dadin. Horrela, transexualitatea bezalako errealitate sozial batek, genero-identitatearen aldaketatzat hartzen denak, arazo juridiko nagusietako bat konpontzen zuen. Lege honen kasuan, prozesuari hastapena emateko, 18 urtetik goragokoek egin zezaketen soilik. Aldiz, 2019an antikonstituzionaltzat hartu zuen Konstituzio Auzitegiak, izan ere, adin txikiko pertsonen eskubideak betetzen ez zirelako eta “transexualitate egonkor egoera” eskatzen zelako. Izan ere, 2007an planteatzen zen legeak nortasunaren printzipioaren garapena urratzen zuen. Gainera, lege honek patologizatu egiten du transexualitatea, izan ere, beharrezkotzat hartzen da prozesua hasteko disforia diagnostiko bat. Honekin batera, beharrezkoa izango da bi urtetako hormonazio tratamendua. Aldiz, legeak jasotzen du, ez dela beharrezkoa ebakuntzarik egitea sexu aldaketa Erregistro Zibilean burutu ahal izateko. (Legearen aipua falta da hemen)

Espainiar Estatuko gaur egungo testuinguruan gaiaren inguruan eztabaida sakonak ematea, konplexua bilakatzen ari da, zailtasun ezberdinak daude. Komunikabideetan eztabaida gogorak ematen ari dira “lege trans” deiturikoaren inguruan. Tentsioa nabaria izaten ari da, ondorioz, polarizazio gogorra ematen ari da bi postura nagusiren artean. Horregatik, zaila izaten ari da eztabaidarako espazio serioak sortzearen erronka.

LGTBIQ+ kolektiboak historian zehar, beste erronka legislatibo asko izan ditu, hala nola, ezkontza homosexuala edo umeen adopzioarena. Prozesu hauek oso garrantzitsuak dira eta pertsona asko dabilta eskubide hauen alde borrokan, baina mugimendua ez da soilik prozesu legislatibo horietan fokalizatu behar, izan ere, badaude beste zenbait auzi eta problematika kontuan hartu beharrekoak, eztabaidarako espazio politikoak sortzea ezinbestekoa bilakatzen da. Bestalde, LGTBIQ+ mugimenduaren barruan, beharrezkoa da ere eztabaida pluralak ematea, izan ere, mugimendu beraren barruan hainbat militanteek diote, barne eztabaida bat falta dela askotan eta hori dela eta, barne disidentziak ematen dira.

Beste auzi bat Autonomia Erkidegoen rolaarekin izango luke lotura. Miquel Missé bere “*A la conquista del cuerpo equivocado*” (2020) liburuan adierazten duen bezala, legeak, Estatutik datoz, kasu honetan “trans lege” delakoa, aldiz, kasu honetan, Komunitate Autonomo gehienek, haien lege propioa dute, eta askok adierazi dute eskertzen dela horrelakoetan gertutasuna. Guztia ez dago administrazio publikoen esku, erroetik egin behar da lan aldaketa kulturalak egiteko, hau da, gizartearekin zuzenean lotura duen auzia, ondorioz, eraldaketa kulturala erabat beharrezkoa da. Horretarako, beharrezkoak dira agente kulturalak,



komunikabideak...etb. Badaude beste esparru batzuk, nun asko egin beharra dagoen. Kontua ez da soilik legeak egitea, aldaketa kulturala beharrezkotzat jotzen da, baina askotan legeak egitea merkeagoa ateratzen da aldaketa horietan inbertitzea baino. Horregatik LGTB mugimenduak, estrategia politikoak sortu behar ditu horrelakoak eman daitezen.

Kolektibo barruan ere, beharrezkoa da, ahulena babestea eta interseksionalitatearen kontzeptua barneratua izatea. Horrexegatik, lege bat aztertzen denean, aspektu horiek izan behar dira kontuan. Lege batek ez badu ahulena babesten, ez da antidiskriminazio lege on bat izango.

Aipatu moduan, Espainiar Estatuan, lege transarekiko sortu den zalapartak, zailtasunak sortzen ditu modu egoki batean eztabaidatzeko, ez dira honetarako baldintzak ematen bi postura erabat polarizatu aurkitzen ditugulako. Estatuan, errotutako bi posizio horiek antzematen dira eta horietatik desplazatu beharra dago apur bat irtenbideak aurkitu ahal izateko.

Ondoren, askok eztabaidaren fokoa umeetan ipintzen dute, ume transen auzia kontu oso konplexua da. Transitoak ematen dira sistema binarioa dela eta? Honi dagokionez, autore askok diote feminitatea ez dela emakumeentzako inposizio bat izan beharko eta gauza bera gizonetzkoentzat maskulinitateari dagokionez. Eztabaidatzen da: Zergatik ume hauek aukeratzen dituzte bide horiek? Gai hauek tratatu behar dira sakonki, baina argi dago horrelakoak ez direla sare sozialetan konponduko eta ez direlako azaleko kontuak dio Miquel Missé autoreak.

Ohituta gaude subjektu politiko bakar batera, baina, interseksionalitatea kontuan hartu beharreko tresna ezinbestekoa da maila honetako eztabaidetan, horrela, kontuan hartu behar dira horrelako problematikek duten konplexutasun osoa. Horregatik, kolektiboaren barruan ere zatiketa pairatzen da eta honako hau arazo garrantzitsua da. Mugimendu beraren barruan betidanik egon dira postura hegemonikoago batzuk, eta beste batzuk disidenteak (minoritarioagoak) direnak. Indar kontserbadoreen gainbehera dagoenean, LGTB mugimenduak txikiagoak egiten dira, eta sortzen diren ahots bakarrak hegemonikoak dira. Ondorio, ahots disidenteak, egoera zail batean geratzen dira. Adibidez, posizio disidente horietan, badago jendeak zeinak pentsatzen duen, badaudela “lege trans”aren puntu batzuk ez daudenak ondo, edo eta ez daudela ados horiekin. Horrexegatik, gaur egungo testuinguruan, oso garrantzitsua bilakatzen ari da kolektiboaren barruan ere eztabaidarako guneak sortzea eta posizio hegemoniko eta disidenteen kudeaketa egoki bat egitea.

Bestalde, beste garai batean, borroka nagusia zen argitzea transexualitatea ez dela gaixotasun bat. Gainera, bazegoen jende asko honako marko hau partekatzen zuena 2007ko legearekin, nun transexualitatea patologizatzen zen. Errelatoan aldaketak eman dira, jendea despatologizaziotik autodeterminaziora egin du jauzi, honako hau aldaketa handia izan da. Horregatik, esan daiteke hemen marko aldaketa bat ematen dela. Eta hemen, beste eztabaida gordin batean sartzeko gara: Norbaitek autodeterminatu dezake bere desira, bere generoa? Edo kontuan hartu behar dira beste elementu batzuk? Hala ere, ez gaude prest, gauden

testuinguruan egonda, autodeterminazio hori definitzeko, beraz, honek zailago egiten du gehiago ere eztabaida.

Kategoria ezberdinak ematen ari dira, eta mugimenduaren barruan isiltasuna ematen ari da hauen inguruan. Badaude kategoria batzuk zeinak besteak lekuz kanpo uzten dituzten edo eta mugitzen dituzten eta hauen inguruko eztabaida ematea ere beharrezkotzat jotzen da. Beharrezkoa da identitate anitz horien inguruan pentsatzea eta gogoetatzea, izan ere, desira eta identitatearen inguruko paradigmak aldatzen ari dira, horregatik, beharrezkoa da auziaren inguruko analisi sakona egitea. Polarizazioa dela eta TERF eta homofobo bezalako terminoak nagusitzen ari dira, titular horiek alde batera utzita beharrezkoa litzateke analisi sakon bat egitea eta ez bakarrik azalekoarekin geratzea, izan ere, askotan hutsalketa eta guzti ere eman daitekeelako.

Subjektu politikoari dagokionez, logikoa da jendeak taldekatze politikoak egitea pairatzen dituzten ezberdintasun eta diskriminazioak aldarrikatzeko. Baina zeinek du hauek tratatzeko legimitatea? Gizon batek feminismoaren inguruan hitz egin dezake eta horretan parte-hartu? Transa ez den pertsona bat transexualitatearen auziaren inguruan hitz egin dezake? Honako hau da mahigaineratzen den beste eztabaida garrantzitsuenetariko bat.

### 3) HELBURUAK

Helburuei dagokionez, bi helburu mota ezberdin antzeman ditzakegu, alde batetik lanaren helburu orokorra egongo da, eta bestalde helburu zehatzago batzuk.

#### HELBURU OROKORRA

-2021eko Espainiar Estatuko "Trans Legearen" aurreproiektuaren baitan feminista klasikoen eta teoria queer-aren arteko gatazkaren analisisa.

#### HELBURU ESPEZIFIKOAK

-2021eko Espainiar Estatuko "Trans Legearen" aurreproiektua ikertzea.

-Komunikabideetan helarazitako iritzi ezberdinak aztertzea.

- "Trans Legearen" aurreproiektuak gobernuko alderdi politikoen artean sortutako gatazkak ikertzea.

-Lege berriak sortu dituen gatazka soziala ikertzea.

-Feminismoaren subjektu politikoaren erronka aztertzea.

-Gazteek "Trans Legearen" aurreproiektuaren inguruan duten iritzia ezagutzea.

-Feminismo klasikoago bat jarraitzen dutenen iritzia ikertzea.

- Transfeminismoa babesten dutenen iritzia ikertzea.

-Legearen faktore polemikoak aztertzea.

-Parte hartzaileak "Trans Legearen" aurreproiektuan ikusten dituzten hutsuneak ezagutzea.

- Parte hartzaileak "Trans Legearen" aurreproiektuaren inguruan proposatzen dituzten ekarpenak aztertzea.

## 4) METODOLOGIA

Gradu amaierako lan honen atal honetan, marko metodologikoari erreparatuko diot. Metodologiaren diseinua ikerketa-galderari erantzuteko eta hipotesia egiaztatzekeko prozeduren multzoa da eta honen bitartez, arazoari erantzuteko eta ikerketa-helburuak lortzeko sortutako plana edo estrategia gauzatu daiteke. (Bernal, 2006). Beraz, hau kontuan izanik, diseinu metodologiko honekin nire helburuak lortzea ahalbidetuko didan estrategia zehaztuko dut. Hartara, lanaren hastapenean planteatutako ikerketa galderari erantzuna emateko jarraituko dudan prozedura azalduko dut. Horrela, helburu guztiak jorratuz, orokorrak nahiz zehatzak eta planteatutako hipotesien egiaztapena egingo dut.

Nire lanaren abiapuntua 2021ean proposatu zen “Trans Legearen” aurreproiektuan oinarrituko da. Hortaz, honen irakurketa, analisia eta polemikoenak diren atalak zehaztu ostean, gobernu barneko alderdi politikoaren artean eman diren gatazkak PSOE eta Unidas Podemosen artean ikertuko ditut, gerora, mugimendu feministaren baitan emandako zatiketaren analisi bat ere eginez. Honako guzti hau gauzatzeko, lehenik eta behin, lege aurreproiektua eta honen harira sortutako memorian oinarrituko naiz. Gainera, gaia lantzen duten albiste eta artikulak baliatu ditut iritzi ezberdinak jaso ahal izateko.

Bernalek (2006) esandakoa eta ikerketa motaren emaitzak diseinuan egingo denaren arabera dela abiapuntuzat harturik, kasu honetan erabiliko dudana ikerketa mota mixtoa izango da, hots, ikerketa teknika kualitatibo zein kuantitatiboak erabiliz.

Taylor eta Bogdan-en arabera (1986), metodologia kualitatiboak, bere zentzurik zabalenean, datu deskriptiboak sortzen dituen ikerketari egiten dio erreferentzia: pertsonen hitzak, hitz eginak edo idatziak, eta jokabide behagarria. Autore horiek, gainera, metodologia kualitatiboaren ezaugarria induktiboa eta ikuspegi holistikoa izatea dela adierazten dute, non modu naturalean jarduten den.

Horrela, planteatutako gaiaren lanketa egoki eta borobila egin ahal izango dut. Teknika kualitatiboak erabiliko ditut, ikuspuntu ezberdinen konparaketa egitea eta bizipen eta ulkerak ezberdinak ikertzea garrantzitsua delako kasu honetan, ematen ari den eztabaida ulertu ahal izateko. Horregatik, elkarrizketa bitartez, feminismo klasikoaren ordezkari bati eta transfeminismoaren ordezkari bati sakoneko elkarrizketa egingo diet auzia hurbilgotik aztertu ahal izateko. Izan ere, honek lehenengo pertsonan kokatzea, ikuspegia osatzea eta informazio aberastea ahalbidetuko digu.

Elkarrizketa gauzatzeko eredu erdi egituratua erabiliko da, hots, galdetegi zehatz bat erabiliko da baina elkarrizketaren joanaren arabera marko zehatz horretatik atera behar izatekotan aldaketa malguak gauzatu dira. Honen bitartez, aurrez aurre dugun elkarrizketatzailearen erosotasuna bermatuko da, eskuratzen den informazioa sakonagoa izango den heinean. Era berean, elkarrizketatuaren denbora latentzia eta anonimotasuna errespetatuko da bere segurtasuna, ongizatea eta intimitatea bermatzeko.

Honekin batera, elkarrizketa kualitatiboa gauzatzeko erabiliko den teknika sakoneko elkarrizketa izango da. López eta Pierrer-ek (2011) honela definitzen dute;

“Sakoneko elkarrizketa teknika kualitatiboa da, eta nolabaiteko askatasuna gordetzen du elkarrizketa egiteko moduan, erantzuteko moduan inkestatuen antzera; beraz, galderak irekiak dira. Gainera, emaitzen ondoren, elkarrizketatzaileak edukia behatuko du eta datuak modu kualitatiboan aztertuko ditu. Kasu horretan, elkarrizketa esku-hartze gisa erabiliko da, parte-hartzaileen datu egokiak biltzeko tresna gisa balio baitu, eta, horrela, haien arazoak identifikatu ahal izango dira, haien gainean eragiteko, pertsonaren ongizatea hobetuz”.

Zehazki bi pertsona elkarrizketatuko ditut nun hauek postura ezberdinetan kokatzen diren, bata, feminismo klasiko batean kokatzen dena anonimoa izango da eta “A” deitu diot. Aldiz, transfeminismoaren baitan kokatutakoa Josebe Iturrioz da. Ez dut anonimotasuna mantendu berak hala eskatu, aldarrikatu eta baimenduta. Izan ere, berak argudiatzen du posizio politiko bat defendatzen ari dela, kasu honetan, transfeminista eta horregatik ez duela ulertzen elkarrizketaren anonimotasuna. Biak antolakuntza feministak urteetan zehar ibilitako pertsonak dira eta auziaren inguruko postura ezberdinak azalduko dizkigute.

Bestalde, aurretik aipatu den modura, metodologia kuantitatiboa erabiliko da jendartearen iritziak jaso eta aztertu ahal izateko, hartara, iritzi publikoaren analisia gauzatzeko. Fernández eta Diaz-ek (2002) honela definitzen dute metodologia kuantitatiboa eta honen zeregina;

“Ikerketa kuantitatiboan aldagaiei buruzko datu kuantitatiboak bildu eta aztertzen dira. Ikerketa kuantitatiboak aldagaien arteko lotura-indarra edo korrelazioa zehaztu nahi du, baita emaitzen orokortzea eta objektibazioa ere, lagin baten bidez, lagin ororen jatorria den biztanleriari inferentzia egiteko. Elkarketa edo korrelazioa aztertu ondoren, kausazko inferentzia egin nahi du, gauzak zergatik gertatzen diren edo ez modu jakin batean azaltzeko.”

Beraz, modu orokorrean esan genezake bi metodologiaren arteko desberdintasun nagusia honako hau dela; kuantitatiboak, kuantifikatutako aldagaien arteko lotura edo erlazioa aztertzen duela eta kualitatiboak, berriz, egitura eta testuinguruetako egoerena. Honekin batera, ikerketa gauzatzeko inkesta baten bitartez jendartearen iritzia jaso beharko dugun honetan, metodologia parte hartzaile batean oinarritu beharko garela zehaztu beharra dago, hots, haien iritzi eta ezagutzen bitartez lanaren osotasuna eta aberastasuna bermatuko delako. Inkesta honetarako zehaztutako adin tartea 16-30 urte bitartekoa izango da, izan ere, gazteen iritzia ezagutzea eta eskuratzea delakolan honen interes gorena. Era berean, partaideak Espainiar Estatuakoak izatea erabaki da, aipatutako lege aurreproiektuak Estatu mailako aldaketak eta berrikuntzak ekarriko dituelako. Lagina 202 pertsonakoa izango da eta inkestan, inkestatuen datu orokor batzuk, legearen inguruko galderak, galdera polemiko sorta auziaren inguruan eta haien iritzi pertsonalak jasoko dira.

## 5) ANALISIA

### **5.1 Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektuaren inguruan.**

#### **Sarrera: Testuinguratzea**

Azken urteotan, hainbat lege garatu dituzte nazioarteko, tokiko eta estatuko hainbat erakundek, LGTBIQ+ kolektiboaren pertsonen eskubideak bermatzeko, diskriminazio eta bazterkeria egoerak desagerrarazte aldera, aniztasun afektiboa, sexuala eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizi ahal izatea bermatzeko.

Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektuaren arau-inpaktuaren analisiaren memorian adierazten den bezala (2021), berdintasuna eta diskriminaziorik eza printzipio juridiko unibertsala da, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aldarrikatua, eta, gainera, oinarrizko eskubide gisa aitortzen da gure ordenamendu juridikoan. Adibide argienetako bat Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. artikulua da. Bertan adierazten da pertsona orok dituela Adierazpen horretan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein motatakoa, jatorri nazionala edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza bereizi gabe.

Nazio Batuen esparrutik hainbat dokumentu eta gomendio onartu dira, printzipio horiek bermatzeko eta LGTBIQ+ pertsonen osotasun-eskubidea eta diskriminaziorik eza errespetatzeko eta babesteko nazioarteko estandarrak handitzeko. Atal honetan, esate baterako, Nazio Batuen organoek emandako ebazpenak daude, hala nola Giza Eskubideen Kontseiluari dagokiona, eta nabarmentzekoak dira 2011ko ekainaren 17an emandako Ebazpena, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, edo 2016ko ekainaren 30ean emandako Ebazpena, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen ondoriozko indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesari buruzkoa. Beraz, nabarmendu behar da hori guztia ez dela soilik herritar guztien artean errespetua sustatzeko eta laguntzeko gomendioez ari, indarkeriari eta diskriminazioari buruzko jarraibideak eta gomendioak ezartzen laguntzen baitu.

Transexualitateari dagokienez, erakundeetako edota gobernuko hainbat eragilek hitz egin dute arazoa ardazteko eta gizarteratzea errazteko eta, aldi berean, berdintasuna eta gizarte-ekitatea ahalbidetzeko bitartekoak azaltzeko eta plazaratzeko. Horien artean aipatzekoa da Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak 2018ko hamaikagarren berrikuspenean (GNS-11) abian jarri zuena, transexualitatea nahasmendu mentalei eta portaera-nahasmenduei buruzko kapitulutik ezabatzen duena, eta "Osasun sexualari lotutako baldintzak" atalera eramaten duena; horrek trans pertsonen despatologizaziorako abala dakar.

Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, bere jurisprudentzian, adierazi du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEB) 14. artikuluan jasotako diskriminazio-debekuak genero-identitatearekin zerikusia duten gaiak barne hartzen dituela, eta bermatu behar dela sexua erregistroan aldatuko dela prozedura medikorik jasan gabe, edota sexu-berresleipeneko ebakuntza bat edo hormona-terapiarik gabekoa.

Espainiako Konstituzioari dagokionez, 14. artikulua, Giza Eskubideen Kontseiluak adierazten duen bezala, berdintasunerako eskubidea aldarrikatzen du, bai eta jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik bereizkeriarik ez egiteko eskubidea ere eta aitorten hori lotzen zaio Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluari, pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen askea ezartzen baititu ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa. Gainera, Espainiako Konstituzioak 9. artikulua 2. paragrafoan ezartzen duenez, botere publikoek baldintza egokiak sustatu behar dituzte gizabanakoaren eta hura osatzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen. Era berean, haien osotasuna eta bizi kalitatea baldintzatzen duten edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dituzte.

Azkenik, Espainiako Konstituzioaren 10.1 artikulua, nortasunaren garapen askearen printzipioari buruzkoak, sexuaren aipamena erregistroan aldatzeko eskubidea oinarritzen du. Horri dagokionez, uztailaren 18an, Konstituzio Auzitegiak ezartzen du pertsonari aukera ematen diola bere nortasunari buruzko erabakiak eraginkortasun juridikoarekin hartzeko. Norberaren identitatea, non izena eta sexua bezalako alderdiak inskribatzen diren, gizakiaren ezaugarri nagusi bat da. Norberaren nortasuna ezartzea ez da pertsonaren beste ekintza bat, baizik eta bizi-erabaki bat, subjektua bere nortasuna moldatzeko egoeran jartzen duen zentzuan. Bestalde, Espainiako Estatuan ere, Auzitegi Gorenak ildo beretik jo zuen 2019ko abenduaren 17ko 685/2019 epaian.

Hala eta guztiz ere, gaur egun dauden legeak egonda, LGTBIQ+ kolektiboari dagokionez, indarkeria, diskriminazio eta bazterketa-faktoreak ohikoak izaten jarraitzen dute esparru politiko eta sozial ezberdin bitartez.

Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektua, “lege trans” izanarekin ezagunagoa dena, Ministro Kontseiluan onartua zen 2021eko ekainaren 23an. Lege berri hau oraindik ere tramitazioetan dabil, eta esan daiteke bi esparru nagusi jorratzen dituela, nun gobernu berria konprometitu zen kolektibo hauen eskariak entzun eta haien beharrak asebetetzera, hartara, pausoak emanaz eskubide eta berdintasun errealekora. Alde batetik, legearen esparru bat gehiago dago lotuta modu zehatzago batean pertsona transetara, eta besteak esparru zabalagoa hartzen du, alegia, LGTBIQ+ kolektiboa orokorrean barne biltzen duela esan daiteke.

Lehenik eta behin, lege despatologizante batez ari gara, hau da, lege honen bitartez, trans pertsonak ez dira inondik ere, gaixo dauden pertsonak kontsideratuko legez, izan ere,



transexualitatea ez da gaixotasun ezta nahasmendu bat ere, eta horrela jasotzen du OMSeK CIE-11 eguneratutakoan.

Era berean, arau berriak aukera ematen die lesbiana, bisexual eta bikoterik gabeko emakumeei laguntza bidezko giza ugalketarako tekniketara berriro sartzeko, 7 urtez Osasun Sistema Nazionalean eskubide hori eskuratu gabe egon ondoren. Era berean, Gobernuak konpromisoa hartu du 6 hilabeteko epean ministro-agindu bat idazteko, kudeatzeko gaitasuna duten trans pertsonen eskubide hori zabaltzeko. Aurreproiektu honek Kode Zibilaren 120. artikulua aldatzen du eta LGTBIQ+ kolektiboaren eskaeretako bati erantzuten dio, hala nola bi emakumek osatutako bikoteen seme-alaben filiazioari, ezkondata egon beharrik gabe. Gainera, pertsonen orientazioa, sexu-identitatea edo genero-adierazpena aldatzera bideratutako konbertsio-terapiak debekatzen dira, pertsona horrek baimena eman badu ere.

Arautegi honen bitartez, LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatu nahi dira hezkuntza eta lanean bezalako esparruetan. Arauak ekintza positiboko neurriak ere jasotzen ditu LGTBIQ+ pertsonen enplegua lortzen laguntzeko, batez ere trans emakumeei, bai eta lan-arloko beste berdintasun-neurri batzuk ere. Era berean, bermatu egiten du trans pertsonentzako osasun-arreta ez-patologizazioaren, autonomiaren, baterako erabakiaren eta baimen informatuaren printzipioen arabera egingo dela. Gainera, hezkuntza-curriculumetan sexu-, genero eta familia-aniztasunaren ezagutza eta errespetua sartzeari aurreikusten da, etapa guztietan helburu gisa, bai eta irakasle guztiek gaiari buruzko prestakuntza jasotzea ere.

Bestalde, trans eta LGTBIQ+ pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra helburu duten politika publikoak sustatzeko bi Estatu Estrategia arautzen dira. Horrela, LGTBIQ+ pertsonen tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako Estatuko Estrategia lurralde-lankidetzarako tresna nagusia da, politikak bultzatzeko, garatzeko eta koordinatzeko. Trans pertsonak gizarteratzeko Estatuko Estrategia ere sortu da lege honen bidez. Biak lau urtekoak izango dira.

Garrantzitsua da aipatzea, lege honek, aldaketak ekartzen dituela sexu aldaketa prozedimenduetan. Aurreproiektuak, pertsona transen genero identitaterako determinazio askea jasotzen du. Honako aldaketa hau, Erregistro Zibilean egingo da, lekukoak egoteko inolako beharrik gabe. Formulario bat beteko du, eta bertan adieraziko du ez dagoela ados aipatutako sexuarekin eta aldatzeko eskaerarekin. Erregistro Zibileko arduradunak aldaketa horrek izango dituen legezko ondorioen berri emango du, eta zuzenketa eskatuko du. Horrela, 3 hilabeteko epean, pertsonak beste agerraldi bat egingo du bere eskaera berresteko eta sexua aldatzeko erabakiak bere horretan jarraitzen duela ziurtatzeko. Bigarren agerraldi hori egin eta hilabeteko epean, Erregistro Zibileko arduradunak ebazpena emango du.

Aipatutako prozedimendu hau 16 urtetik gorako pertsonen bakarrik eman diezaiokete hastapena, eta 14 urtetik gorakoek baina 16 urtetik beheragoko adina dutenek, prozesuari hastapena eman diezaiokete beti ere, bere legezko ordezkariak lagundu eta baimenduta. 12 urtetik gorakoek eta 14 urtetik beherakoek kasuan, erregistroko sexua aldatzeko prozedura

borondatezko jurisdikzioaren bidez egingo da. Aurreproiektuak, halaber, 12 urtetik beherakoek Erregistro Zibilean izena aldatzeko aukera jasotzen du.

Legearen punturik polemikoenetako bat, genero autodeterminazio askearena izan da, izan ere, Unidas Podemos eta kolektibo ezberdinek ezarritako marra gorria argia izan da lege aurreproiektuaren prozesuan, hau da, izen aldaketa eta sexu aldaketa tramitatu daitekeela NANA horretarako borodatea baldin badu inolako prozesu mediku eta hormonalik igaro gabe.

Irene Montero Berdintasun Ministeritzako arduraduna hala mintzatu zen 2021eko ekainean lege aurreproiektuaren inguruan honako hau aprobata zenean; “Lege honen protagonistak LGTBIQ+ pertsonak dira, bereziki trans pertsonak, baina baita feministak ere. Edo denak iristen gara, edo ez da bat ere iritsiko.” Irene Monterok bere hitzekin adierazi nahi izan zuen trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen eskubideak bermatzeko lege-aurreproiektua, lege feminista bat dela, izan ere, mugimendu feminista klasikoenetik kritika anitz jaso ditu honako honek.

### **Legearen helburu nagusiak**

Lege-aurreproiektuaren helburuei dagokionean, hasteko, prebentzio, zuzenketa eta ezabapen neurriak hartzen dira espazio publiko zein pribatuan diskriminazio eta baztertze eredu guztiekin amaitzeko, hala nola, orientazio eta identitate sexualarekin lotutako diskriminazioak edota genero adierazpen eta ezaugarri sexualekin loturikoak. Aldi berean, lege-aurreproiektu honen bitartez, LGTBIQ+ pertsonen parte-hartzea bultzatzen da bizitza sozialeko aspektu guztietan eta pertsona horien gizarte-pertzepzioan eragin negatiboa duten estereotipoak gainditzea. Honekin batera, historikoki eman den ikusezintasuna, genero normatibo hegemonikoa, estigmatizazioa gainditzea eta eskubide guztien bermatzea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da identitate guztiekiko arreta eta errespetua.

Lege-aurreproiektuak LGTBIQ+ pertsonen bizi-etapa guztiak hartzen ditu hauen kalteberatasuna kontuan hartuz, hots, LGTBIQ+ pertsona migranteak, adin txikikoak eta gazteak eta baita adinekoak ere. Beraz, bizitza sozialeko aspektu guztietan pertsona hauen aurkako diskriminazioarekin amaitzea du helburu nagusi. Neurri eta prebentziozko pritzipio, babesle eta erreparaziozkoak barne biltzen ditu. Beraz, Espainiar Estatuko lurralde guztietan gutxieneko babes-sistema bat ezartzea izango litzake beste helburu nagusienetako bat. Hori guztia, autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan araudi bermatzaileagoak onartzeko duten ahalmenaren kalterik gabe. Izan ere, komunitate autonomoek eskumena dute horrelako politika tokikoagoak garatzeko.

### **Legearen edukia**

Edukiari dagokionean, zioen azalpen batekin ematen zaio hasiera, ondoren, hurrengo atalekin jarraitzen du: atariko titulua, lau titulu eta 78 artikulua guztira. Hauetaz gain, bost xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hamahiru azken xedapen daude. Lehenengo titulua bi kapitulu barne biltzen ditu, eta honako hau, botere publikoen jardunari buruzkoa da. Lehenengo kapituluan, botere publikoen jarduteko irizpideak eta ildo nagusiak ezartzen dira LGTBIQ+ pertsona guztien eskubideak bermatzen. Bigarren

aldiz, LGTBIQ+ pertsonen tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako Estatuko Estrategia bat egitea aurreikusten da. Hori guztia lurralde-lankidetzarako oinarrizko tresna gisa, legean ezarritako politikak eta helburuak bultzatzeko, garatzeko eta koordinatzeko. Kapitulu honek LGTBIQ+ pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoen panoplia bat ezartzen du, nun esparru ezberdinen jarduna ezartzen den. Hala nola, esparru administratiboan, hots, administrazio-agiriak eta formularioak sexu-afektibitate eta familia-aniztasunari egokituta egon daitezten ahalegintzea. Lan-eremuan, kode etikoak eta protokoloak garatzea. Osasun eremuan, LGTBIQ+ pertsonen behar izan zehatzak kontuan izatea. Honekin batera, pertsonen sexu-orientazioa edo sexu-identitatea edo genero-adierazpena aldatzeko edozein metodo, programa edo terapia debekatu egiten da, pertsonen edo haien legezko ordezkarien baimena izanda ere. Bestalde, hezkuntza sexual eta ugalketari buruz dagokionean, beti izango dira kontuan LGTBIQ+ pertsonen beharrak eta edozein diskriminazio eta estigmatizazio sahiestuz.

Jarraiki, hezkuntza esparruan, hezkuntza-etapa desberdinetako curriculumaren oinarrizko alderdien, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren arteko inklusioa aurreikusten da. Jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan, LGTBIQ+ pertsonen aniztasun sexual-afektiboa ordezkatzeko duten kirol-lehiaketak bultzatzea. Publizitatearen eremuari dagokionean, titulartasun publikoko komunikabideetan eta diru publikoa jasotzen duten komunikabideetan, familiaren aniztasun sexual-afektiboarekiko sentsibilizazioa eta errespetua, eta gorrotoa eragin dezaketen edukiak ezabatzea. Honekin batera, ziberjazarpenarekin amaitzea helburu du. Eta amaitzeko, familiaren, haurren eta gazteen eremuan, familiaren dibertsitatea babestea eta LGTBIQ+ adingabeen errespetua eta babesa sustatzea.

Bigarren tituluan, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako neurrien katalogo bat jasotzen du, hurrengo bi kapituluetan banatuta dagoena. Lehen kapituluaren pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketaren prozedura jasotzen da. Ezartzen da hamasei urtetik gorako espainiar nazionalitatea duen pertsona orok bere kabuz eskatu ahal izango diola Erregistro Zibilar sexua erregistro-aipamena zuzentzeko; halaber, hamasei urtetik beherako eta hamalau urtetik gorako pertsonak beren kabuz aurkeztu ahal izango dute eskakizuna, baina prozeduran beren legezko ordezkariak lagunduta. Prozedura hau Erregistro Zibileko arduradunak eramango du aurrera. Guzti honekin batera, Erregistroko aipamenaren zuzenketa itzultzeko aukera aurreikusten da, zuzenketa hori sustatu duten pertsonen zuzenketa Erregistro Zibilean inskribatu eta sei hilabete igaro ondoren, eta, horrela, erregistro zibilean berretsi aurretik zegoen sexua erregistro-aipamena berreskuratu ahal izango dute.

Titulo honen bigarren atalean, politika publiko sorta bat jasotzen da pertsona transen berdintasun erreal eta eraginkorra bermatzeko. Honako honetan barneraturik, bultzapen, garapen eta koordinazio politikak trans pertsonen inklusio soziala bermatu ahal izateko. Estrategia estatal honek hurrengo puntuak jorratuko ditu:

- Lan-eremua: Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, trans pertsonak gizarteratzeko estatu-estrategiaren esparruan, ekintza positiboko neurriak diseinatuko

ditu, besteak beste, trans pertsonak kontratatzeko pizgarriak eta kolektibo horren enplegua sustatzeko berariazko planak.

- Osasun eremuan: Trans pertsonen osasun atentzioari dagokionean, ez da inolaz ere patologizatuko, beti patologizazio ezatik tratatuko dira trans pertsonak eta atentzio berzi eta zehatza ipiniko zaie trans pertsonak dituzten osasun arazoei, hala nola, hormonazio ezberdinak, ebakuntza kirurjikoak eta osasun sexual eta ugalketakoa.
- Hezkuntza eremuan: Halaber, ikasle adingabeek beren erregistro-izenaren araberako tratua jasotzeko duten eskubidea arautzen da. Honekin batera, protokoloen osaketa jazarpen tarnsfobikoaren kontra eta ikasle transen babeserako.

Hirugarren tituluan LGTBIQ+ fobiak eragindako diskriminazioaren eta indarkeriaren aurrean babes eraginkorra eta erreparazioa emateko mekanismoak arautzen dira. Honen barnean, I.kapituluan, babes neurri eta erreparazio neurri orokorrak plazaratzen dira, esparru administratibo eta judizialerako mekanismoak, hots, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidearen bermeak. II. kapituluan, LGTBIQ+ fobian oinarritutako indarkeriaren aurkako laguntza eta babes-neurri espezifikoak arautzen ditu. Administrazio publikoek arreta integrala eta espezializatua bermatu beharko diete indarkeriaren biktimei: laguntza psikologikoa, erantzuna haien behar ekonomikoei, lanekoei, sozialei eta laguntza juridikoa. Titulu honen hirugarren kapituluan, pertsona kalteberen eskubide eta babesaren inguruan dihardu, hala nola, adin txikikoak, intersexualak edo eta adineko pertsonak adibidez.

Laugarren titulua tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko oinarritzko baldintzak bermatzen dituzten arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzkoa da. Dokumentuaren azkeneko atalean aldiz, arauaren xedapen mota ezberdinak azaltzen zaizkigu.

### **Legeak eduki ditzaken eraginen inguruan**

Lege aurreproiektuaren memorian aipatzen da, eragin sozialei dagokionez, guztiz positiboak izango direla, izan ere, lege honek, onura sozial garrantzitsuak ekarriko ditu gurera, giza eskubideen bermea baita. Lege aurreproiektua LGTBIQ+ pertsonen berdintasuna bermatu nahi du bizitza sozialeko aspektu ezberdinetan, aukera eta tratu berdina bermatuz. Bestalde, LGTBIQ+ fobia, diskriminazio eta baztertze sozialaren aurka borrokatuko da.

Generoaren arloan, eragin guztiz positiboa aurreikusten da. Botere publikoek arreta berezia jarriko dute, sexu-orientazioaz eta identitateaz gain, genero-adierazpena edo sexu-ezaugarriak edo beste diskriminazio-faktore batzuk (hala nola sexua) egon daitezkeen kasuetan. Emakume transak, bisexualak, lesbianak eta intersexualak (LTBI) diskriminazio interseksionala jasaten dute: diskriminazio matxista eta LGTBIQ+fobikoa. Horrexegatik, LGTBIQ+ fobiaren aurkako borroka, onuragarria da emakume LBTientzat.

Aurreproiektuak jasotzen duen neurri garrantzitsuenetako bat da emakume lesbianen bikoteek seme-alaben seme-alabatasuna zehaztu ahal izatea, bikote heterosexualen baldintza berberetan, hau da, ez da beharrezkoa ezkondata egotea. Horrela, emakume lesbiana eta bisexualak pairatutako diskriminazio historikoari amaiera emango zaio.

Aldi berean, arreta jartzen zaio LBT emakumeen lan baldintzei, bereziki larria izanik emakume transen lan egoera eta baldintzak. FELGTBek egindako inkesta batean, plazaratzen da emakume transen %17a langabezian dagoela. Bestalde, ikerketa berdinean adierazten da, %66a baztertuta sentitu dela bere lanean azkeneko 12 hilabeteetan.

Miquel Missé eta Gerard Coll-Planasek egindako “Identificación de factores de inserción laboral de las personas trans. Exploración del caso de la ciudad de Barcelona” lanean, azaltzen dute emakume transek aukera gehiago dituztela jazarriak izateko, enplegatzaileek konfiantza galtzea, lan-hierarkian jaistea, kaleratzea, etab. Guzti honen ondorioz, emakume trans asko behartuak ikusten dira prostituziora jotzera bizi ahal izateko. Guzti honek estigma hirukoitza sortzen du emakume transentzat: trans izateagatik, emakume izateagatik eta prostituziora jotzeagatik. Beraz, horrek guztiak eragin negatiboa du emakumeen trans kolektiboan, estereotipoak sortuz eta oraindik gehiago zailduz gizartearatze sozio-laborala.

### **Lege aurreproiektuaren punturik gatazkatsuenak gobernuko alderdien artean eta kaleetan.**

Lege aurreproiektua onartzeko negoziazioak eman ziren Moncloan, PSOE eta Unidas Podemosen artean, postura oso ezberdinak izanik Irene Montero Berdintasun Ministeritzako burua eta garaiko lehen presidente ordearen artean, Carmen Calvo. Lege aurreproiektua onartu baino momentu batzuk lehenagorarte jarraitu zuen bi postura ezberdinen arteko tentsioak, batez ere genero autodeterminazio auziari zegokionean. Aldiz, akordioa, azkenik, Justizia Ministerioaren interzesioari esker iritsi da. Guzti honen harira, aipatu beharra dago oso momentu aproposan iritsi zela legea auziak garrantzia eduki zezan, izan ere, harrotasun astean onartua izan zen. Aldiz, kaleetan eta erakundeetan, hainbat sektore feministetatik kekek nagusitu ziren “trans lege”aren onarpenaren arira. Izan ere, feminismoaren korrante klasikoetatik kontsideratzen dute “lege transa” deiturikoa, atzerapen bat dela emakumezkoen eskubideetan eta emakumeak babesik gabe uzten dituela alegia.

Hartara, nagusiki lege aurreproiektuaren bi atalik polemiko/gatazkatsuenak honako hauek izango lirake: Genero autodeterminazio auzia eta adin txikiko LGTBIQ+ pertsonak. Genero autodeterminazioari dagokionez, legeak sexu aldaketa jasotzen du, alderdi sozialistak eskatzen ez zuen bezala, nun hauek genero aldaketa soilak defendatzen zuten, sexua erabat naturalizatuz Unidas Podemoseko kideek ez bezala. Bestalde, analisisan lehenago aztertu moduan, legeak dio Erregistro Zibilean sexua aldatzeko ez dela beharrezkoa izango genero-disforia diagnostikatzen duen txosten mediko bat. Honekin batera, ez da inolaz ere beharrezkoa izango bi urteko hormonazio prozesua. Aldaketa burutzeko nahikoa izango da interesatuta dagoen pertsonaren eskaerarekin, hau da, idatziz egindako eskaera eta ez da beharrezkoa lekukorik ezta probarik ere. Arduraduna erregistro zibileko langilea izango da eta hark geldiarazi ahal izango du izapidea, zalantzarik edo iruzurrezko arazoren bat dagoela susmatzen badu.

Honela dio lege aurreproiektuaren 37.artikuluak: genero autodeterminazioaren legitimazioaren inguruan:

*“Toda persona de nacionalidad española mayor de dieciséis años podrá solicitar por sí misma ante el Registro Civil la rectificación de la mención registral del sexo.” (37.1. artikulua).*

*Las personas menores de dieciséis años y mayores de catorce podrán presentar la solicitud por sí mismas, asistidas en el procedimiento por sus representantes legales. En el supuesto de desacuerdo de los progenitores o representante legal, entre sí o con la persona menor de edad, se procederá al nombramiento de un defensor judicial de conformidad con lo previsto en el artículo 300 del Código Civil. (37.2. artikulua).*

*Las personas con discapacidad podrán solicitar, con las medidas de apoyo que en su caso precisen, la rectificación registral de la mención de sexo. (37.3. artikulua).*

*El ejercicio del derecho a la rectificación registral de la mención relativa al sexo en ningún caso podrá estar condicionado a la previa exhibición de informe médico o psicológico relativo a la disconformidad con el sexo mencionado en la inscripción de nacimiento, ni a la previa modificación de la apariencia o función corporal de la persona a través de procedimientos médicos, quirúrgicos o de otra índole.”(37.4. artikulua).*

Beste puntu garrantzitsu bat adin txikikoena izango litzateke, nun lege aurreproiektuan adierazten den 16 urtetik gorakoek posible izango dutela Erregistro Zibilean beraien kabuz, tutore legalen baimenik gabe sexu aldaketa egitea. Bestetik, 14 urtetik goragokoek haien ordezkari legalen baimenarekin burutu dezakete prozesua eta 12 urtetik goragokoek bide judizialetik, baina azken hauek soilik izen aldaketa burutu ahalko dute sexu aldaketa egin gabe Erregistro zibilean.

Lege aurreproiektura jotzen badugu, aurretiaz ikusi moduan 37.1. artikulua adierazten du 16 urtetik goragokoek hasi dezaketela tramitazioa haien kabuz. Bestalde, badaude legean beste artikulua batzuk adin txikikoei dagozkienak, hala nola:

*“Las personas menores de edad hayan iniciado o no el procedimiento de rectificación de la mención relativa al sexo en el caso de que estén legitimadas para ello, tienen derecho a obtener la inscripción registral del cambio de nombre por razones de disconformidad con el sexo mencionado en su inscripción de nacimiento.” (42. artikulua. Adingabeen Erregistro Zibilean izena aldatzea).*

Bestalde, genero-indarkeriari dagokionean, araudiak genero-indarkeriako kasuei ere eragingo die. Aurreproiektuak zehazten du pertsonak erregistro-sexua aldatu aurretik zituen eskubide eta betebeharrak juridikoei eutsiko diela, genero-indarkeriaren aurkako legea berariaz aipatuta, izan ere gizarteko sektore ezberdinetatik, gehien bat sektore feminista kritikoenetatik horren beldur dira eta horixe bera kritikatzeko dute, hots, emakumeak babestu behar direla. Horrela, azpimarratu egiten da ustezko erasotzaile batek ezin duela bere legezko sexua aldatu

generoagatikoa astungarria dakarren kondena saihesteko. Horrela, adibidez, kontuan hartuko dira delitua gertatu zen unean gertatzen ziren inguruabarrak; gizon batek ezin izango du sexu-aldaketa eskatu salaketa jarri ondoren. Horrela, emakume guztien segurtasuna eta justizia bermatzen da. Hala ere, askok deritzote ez dela nahikoa.

40.artikuluan, “efectos” izenekoa, honelakoak aurkitu ditzakegu;

*“La persona no podrá ser beneficiaria de medidas de acción positiva adoptadas específicamente en favor de las mujeres en virtud del artículo 11 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, respecto de las situaciones jurídicas anteriores a la rectificación registral, si bien conservará los derechos patrimoniales 23 consolidados que se hayan derivado de las mismas, sin que haya lugar a su reintegro o devolución.*

*Respecto de las situaciones jurídicas que traigan causa del sexo biológico, la persona conservará, en su caso, los derechos inherentes al mismo en los términos establecidos en la legislación sectorial.” ( 40.3. artikulua.)*

*“La rectificación de la mención registral relativa al sexo y, en su caso, el cambio de nombre, no alterarán la titularidad de los derechos y obligaciones jurídicas que pudieran corresponder a la persona con anterioridad a la inscripción del cambio registral, en particular a efectos de lo establecido en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género. “ (40.4. artikulua)*

Genero ez bitarraren auziari dagokionez, eztabaida ezberdinak eman dira gobernuko alderdi politikoaren artean. Berdintasuneko Ministeritzatik “Genero ez bitarra” sartu nahi izan zuten lege aurreproiektuan beste genero identitate aukera bat moduan, aldiz, PSOEko kideek ez zuten onartu. Horregatik, lege aurreproiektuak ez ditu barneratzen pertsona ez bitarrak bere zehaztasunetan.

Lege aurreproiektuak argi uzten du ere, osasungintzari dagokionean, guztiz despatologizatuko dela transexualitatea 2007ko legean ez bezala, nun bi urteko hormonazioa eskatzen zen sexu aldaketa egin ahal izateko erregistro zibilean.

Unidas Podemosek, legearen bultzatzaile nagusiak trans kolektiboaren eskubide guztien bermea bilatzen zuten. Aldiz, PSOEko sektore klasikoenetatik uste izan zen “trans legeak” ondorio latzak izango zituela emakumeen eskubideetan. Horrela, gatazkarik nagusi eta ikusgarrienak Irene Montero eta Carmen Calvoren artekoak izan ziren, nun hauek komunikabide ezberdinetan ohiartzuna izan zuten. Calvok plazaratzen zuen kezka nagusia genero autodeterminazioarekikoa zen, ez zuen begi onez ikusi borondate soilarekin egin ahal den genero autodeterminazioa lege aurreproiektuan ezartzen den moduan, hau da, inolako txosten medikurik gabekoa. Hain zuzen ere, honakoa esan zuen Calvok: *“Batez ere, generoa borondate edo desira hutsez aukeratzen dela pentsatzeak kezkatzen nau, gainerako 47 milioi*

*espainiarren nortasun-irizpideak arriskuan jarritz". Bestalde, Calvok bere kezka azaldu zuen adin txikiko pertsonen dagokionean, ez zuen begi onez ikusi ere 16 urteko adin txikikoek sexu aldaketa burutu dezaketarik. Adin txikikoen erabateko babesa aldarrikatzen du eta gainera, bere posturari batzen dio ez dela soilik adin kontua, baizik eta bere esanetan, iada badaude eskubide batzuk ezarrita eta horien gainean beste batzuk sortzea oso kontu konplexua izan daitekeela argudiatzen du. Calvo horrela mintzatu zen SER irrati katean emandako elkarrizketa batean 2021eko otsailean: "Ez da adina bakarrik, eta adingabeei buruzko gaiak bereziki babestuta egon behar dute, baina arazoa da eskubideak inoiz ez direla absolutuak demokrazian, beti dituztela mugak, denek dituztela beste batzuekin talka egiteko profilak"*

Calvok sarritan adierazi zuen Irene Monteroren ministeritzaren legeari dagokionean, gai konplexu eta garrantzitsua dela, nun trans kolektiboak eskubide batzuk eta babesa aldarrikatzen duen baina Calvoren usteetan gauzak kontu handiz egin behar dira emakumeen eskubideak ez zapaltzeko legean erabiltzen den auzi eta terminologia jakin batekin. Guzti honekin batera, Calvok azpimarratzen du PSOEek duen esperientzia berdintasunaren arloan eta Monterok proposatutako legea Konstituzio Auzitegiaren baitan ipintzea proposatu zuen Konstituzioa errespetatzen dela bermatzeko. Plazaratzen du guztiz beharrezkoa dela segurtasun juridiko eta kalitate normatiboarekin legeak egitea. Honakoa esan zuen aurreko elkarrizketa berean: "Lege horiek oso zorrotzak izan behar dute, herritarren funtsezko alderdiei eragiten dietelako, eta segurtasun juridiko nahikoa dutelako eskubide berriek lehendik daudenei inolako murrizketarik ez eragiteko"

Orokorrago hitz eginda, feminismoaren adar batetik, nun PSOEko feminista historiko eta klasiko asko kokatzen diren, kontsideratzen dute genero autodeterminazioak arriskuan jartzen duela zer suposatzen duen emakume izatea subjektu politiko moduan eta kontzeptu juridikoari dagokionean ere. PSOE alderdiak argudio multzoa osatu zuen legearen aurkako postura indartzeko, haien artean honako hau sinatu zuen kideetako bat Carmen Calvo izan zen, alderdiko Berdintasun idazkaria hain zuzen ere. Argudioetako bat da, transexualitatearen egoera egonkorra defendatzen dutela, eta honako hau behar bezala egiaztatua egon beharko da. Honekin, adierazten dute prozesu medikuen aldekoak direla, eta oztopo burokratikoak babesten dituztela trantsizioa burutu ahal izateko.

Beraz, alderdien arteko ezadostasun handienetako bat genero autodeterminazioaren auzia izango litzateke ondo aztertu moduan. Izan ere, lege aurreproiektuak dio, 16 urtetik goragoko edonork izena zein sexua aldatu dezakeela Erregistro Zibilean inolako tramitazio medikurik gabe eta inolako lekukorik gabe. Azkenean, lege aurreproiektuan ikusi den moduan Unidas Podemosen postura atera da garaile. Aldiz, PSOEko kideek argudiatzen dute hori iada, honako lege hau gabe posible dela Espainiar Estatuan, izan ere, ez da beharrezkoa genitalen ebakuntzarik egitea izena eta sexua aldatu ahal izateko NANean, txoten mediku edota psikologikoarekin eta bi urtetako tratamendu hormonalarekin nahikoa izaten da. Aldiz, Podemosen aburuz, hori ez da nahikoa, ez direlako trans pertsonen eskubideak bermatzen eta transexualitatea patologizatu eta judizializatu egiten da 2007. urteko legeak dioen moduan.



PSOetik Calvok aldarrikatzen zuen prozesu honetan erregistro aldaketarako bi ikuskaritza ematea epaile baten eskutik, lehenik eta behin aldaketa eskatzeko eta bigarrenik berresteko.

Gaur egun, hormonazio tratamenduei dagokionean, 16 urtetik gorakoek haien kabuz eman ahal diote hastapena eta 16 urtetik beheragokoek ordezkari legalen onespenerekin. Honako tratamendu hauek pubertaroan hormona blokeoa ezartzen dute eta gerora, hormona gurutzatuak aplikatzen zaizkie trans pertsoneri; trans mutilei testosterona eta trans neskei estrogenoak. Gaur egun, adin txikiko pertsona transek aipatutako baldintzen barnean aukera dute tratamendu hauetara iristeko talde mediku batean kontrolpean betiere, baina askotan guzti hauek prozesu luze bat suposatzen dute hormona horiek lortzeko eta prozesua erraztu behar dela aldarrikatzen dute hainbat sektoreetatik. Hau baldintzatuta dago ere, segun eta zein Komunitate Autonomoetan bizi den pertsona. Calvok PSOetik errezeloa adierazi du honen arira, izan ere, bere aburuz, soilik 16 urtetik goragokoek eduki beharko lukete eskubidea hormonazio prozesu horrekin hasteko eta ez adin hori baino lehenago inolaz ere. Aldiz, trans kolektiboko hainbat eragilek adierazten dute hormonazio prozesuarekin hastea ezinbestekoa dela, pubertaroa 16 urte baino lehenago garatzen delako gehienetan eta bizarra, bularra... eta beste hainbat gorputz atal eraldatzen dira 16 urte eduki baino lehenago.

Bestalde, Unidas Podemosetik guztiz beharrezkoa kontsideratzen da Estatu mailako trans legea osatzea, bateratasun bat eman dadin Komunitate Autonomoekin, izan ere, gehiengoak lege trans eta politika publiko transak eratu ditu.

Monterok zin egindako genero autodeterminazioa lege izango dela ziurtatu ahal izan zuen nahiz eta negoziaketa luzea izan eta Calvok ezarritako blokeoa azkenean apurtu. Bestalde, ezinbestekoa da aipatzea feminismoaren baitan emandako gatazka auziari dagokionean, izan ere, eztabaida izugarria ireki da feminismoan, tradizionalki PSOerekin bat egin duten sektoreek uste dutelako genero-autodeterminazioak "ezabatu" egiten dituela emakumeak, eta arriskuan jartzen dituela haien eskubideak eta borroka. Tesi hori bera da Calvok babesten zuena hain zuzen ere. Monterok bere aldetik, beste sektoreko kritika feministei erantzunda argi azpimarratzen du "trans legea" guztiz lege feminista dela eta trans pertsonen giza eskubideak bermatzen dituela. Berme judizialari dagokionean, Monterok Campo justizia ministroaren lana azpimarratu du, ezinbestekoa izan dena arauaren segurtasun juridikoa bermatzeko.

Gatazka sozialean gehiago barneratuz, sektore feminista klasikoenetatik eta trans baztertzailenetatik defendatzen dute sexua kategoria biologiko eta juridiko gisa zalantzan jartzen dela kategoria kultural moduan izendatuz. Horrela mintzatu zen Ángeles Álvarez PSOeko diputatu ohia 2020ean: *“Con leyes de autodeterminación que reconozcan que cualquiera puede ser mujer se oculta la realidad de las mujeres, se pierde la operatividad de las leyes de igualdad entre mujeres y hombres.”* (Álvarez, 2020) Feminismo korronte klasikoenetatik guzti honen eraginak salatu nahi dituzte. Salatzen dute teoria queeretik datozen arauak inposatzen direla emakumeak zapalduz. Álvarezek dio: *“El sexo es una*

*realidad, no atenta contra ningún derecho. Es el género, cuando construye la jerarquía sexual, lo que atenta contra el derecho de las mujeres.”*

Aldi berean, salatzen dute iritziak isilarazten ari direla hainbat feministen kontrako jazarpena eta irainak erabiliz. Hauen aburuz, sexu biologikoa ukatzeak eragin sozial garrantzitsuak dazkar berarekin. Izan ere, sexuak ez ditu jarrerak eta rolak definitzen, hori generoak egiten du eraikuntza kultural moduan maskulinoa eta femeninoa definituz. Horrela, esterotipo sexistak sortuz. Ondorioz, korrante hauetatik diote, genero sistema honen aurka egiten duela haien feminismoak. Beren esanetan, subjektibismoa eta genero-esentzialismoa arautu nahi dituzten lege-proposamenek eskuin muturraren diskurtso berean jartzen dute queerra. Bestalde, lengoai inklusiboaren aurkako postura mantentzen dute feminista klasikoek lengoai ez sexistari kontrajartzen zaiolako, eta errealtate sexuala ikusezin bihurtzen duelako. Diotenez, queer generismoak posizioak irabazteko auzi estrategikoak egitera jotzen du. Bestalde, haien ustez, sexua kategoria juridiko bezala ezabatu ezker, estatistiko bezala ere desagertuko da honek ondorio latzak suposatuz sexu ezberdintasunaren inguruko datuak eskuratzea.

Postura erradikalenetatik diote horrelako lege transak zentzugabekeria hutsa direla, salatuz, lege hauek adin txikikoen eta emakumeen kontrakoak direla. Adin txikikoei lotuta, hala mintzatu zen Vitoria Sendón filosofa El Mundok egindako elkarrizketa batean 2020ko martxoan:

*"Si las leyes trans hubieran existido en nuestra generación, cuando teníamos 12 años, ahora seríamos señores con bigote y barba y con una doble mastectomía, porque cuando nos preguntaban qué queríamos ser de mayores, siempre decíamos que queríamos ser chicos. Era más divertido ser un chico que una chica: ellos tenían el protagonismo y nuestros roles nos parecían ridículos. Nuestras madres nos hubieran hormonado y nos hubiéramos convertido en chicos" (Sendón, 2020).*

Teoria queerek esaten dutenaren kontrakoak dira, hau da, genero autodeterminazioaren kontra kokatzen dira guztiz, haien ustetan ezin delako soilik sentitu, errealtate biologiko bat baitago. Elkarrizketa berean, hurrengo esan zuen Victoria Sedonek:

*"Lo que no es el sujeto político del feminismo es la diversidad. Hay movimientos que se quieren subir al carro del movimiento feminista, pero representan el 0,1% de la población. Lo LGTBI no implica necesariamente feminismo. Podemos lo ha puesto bajo el mismo epígrafe y ha sido un lío. No tenemos objetivos ni intereses comunes. Siempre hemos apoyado el movimiento trans y gay, pero no somos la misma cosa" (Sendón, 2020).*

Beste erradikalek esandakoen artean hurrengoak ditugu, Elena Rabade, Alderdi Feministako kideak, hau esan zuen haurtzaro eta gaztaro transen inguruan El Mundorako prentsurreko batean:

*"Están planteando algo muy grave, que es llegar al Registro Civil y decir hoy que eres mujer y mañana que eres hombre. Si hasta los 18 años no puedes votar o conducir, ¿cómo con una sola declaración un niño puede disponer sobre su cuerpo y su salud? Deberían poder intervenir los servicios sanitarios o el Ministerio Fiscal". (Rabade, 2020).*

Emakumeen Nazioko kide den Amparo Ballesterosek honakoa esan zuen auziaren inguruan:

*"Países como Canadá o el Reino Unido han aprobado leyes donde "la simple declaración de una persona que se siente de un género que no es el suyo tiene validez a todos los efectos legales. Los hombres trans ganan las competiciones femeninas, exigen ser vistos por ginecólogos sin ser operados, van a cárceles femeninas y entran en las mismas celdas que las mujeres, donde han cometido violaciones". "Es un escándalo para las mujeres, no queremos que España se arrepienta como en otros países, donde el lobby trans es importantísimo" (Ballesteros, 2020).*

Testuinguru gatazkatsu honetan, aipatzekoa da Alderdi Feminista, Ezker Batutik kaleratua izan zela egindako deklarazio transfoboak zirela medio, hauen artean Lidia Falcón, Alderdi Feministako burua hain zuzen ere.

Aurkako posturretatik diote, lege honekin inklusibotasuna lortuko dela trans kolektiboarentzako, hain zuzen ere marginatuta dagoen kolektibo batean alde egingo da, horrela, giza eskubideak bermatuz beste herrialde batzuetan eman den moduan. Gainera, argudiatzen dute ez dela egia lege hauek emakumeen eskubideetan eragin negatiboak dituztenik. Are eta gehiago, lege hauen bitartez adin txikiko trans pertsonak babestuko dira pediatria elkarteek diotenaren arabera. Honekin batera ere, bazterketa egoeran dauden pertsona horien enplegua sustatuko da erreformak egingo direlako lan esparruan. Lege trans estatala ezarriz, edozein Komunitate Autonomoetan bizi diren pertsona transei aukera emango zaie tratamendu medikuetara modu errazago batean jotzeko eta garrantzitsuenetarikoa, trans lege berriarekin transexualitatea despatologizatu egingo da pertsonen duintasuna bermatuko da. Honakoa esan zuen Marina Saez katedradunak El Paiseko elkarrizketa batean 2021ean:

*"Significa que se va a dejar de considerarnos trastornadas, necesitadas de tutela y en su lugar se va a dar peso a nuestra declaración, que era la única prueba que tenían los psiquiatras cuando hacían nuestros diagnósticos. No va a traer una elección de sexo arbitraria o banal. Y no es verdad que estemos negando la realidad del sexo, lo que pasa es que el sexo es algo más que la genitalidad que se tiene al nacer; otros factores también nos hacen seres sexuados." (Sáez, 2021).*

Transfeminismotik leporatzen diote feminista klasiko eta trans baztertzailak direnei, kontuan hartzen duten gauza bakarra genitaltasuna dela, trans pertsonak baztertuz. Askotan, trans

pertsonen artean erresistentziak eman dira haien genero identitatea ukatzeko asmotan, baina azken batean hori ukazina egiten da, ezin da ezkutatu.

Behin guzti hau aztertuta, gertuagoko analisi bat burutuko dut, lehenik egindako inkestaren analisia eginez, jakin ahal izateko jendeak zein iritzi duen auziaren inguruan, eta gero, burututako bi elkarrizketen analisisira joko dut.

## **5.2 Inkestaren analisia**


Eskuratutako lagina 202 pertsonakoa izan da, eta datu orokorreari dagokienean, adinez, gehiengoak izan dira 22-24 urte tartean kokatzen direnak (%42,1), 19-21 urte bitartekoak, %32,7a, 19-18 adin tartekoak %11,4 dira, aldiz, %6,4 25-27 adin tartean mugitzen direnak eta amaitzeko %7,4a, 28-30 adin tartean mugitzen da. Honekin batera, aipatzekoa da ere erantzun duten gehienak EA Ean jaio direla, %82,2a hain zuzen ere. Bizileku testuinguruari dagokionez, gehiengoa hiri eremuan mugitzen da (%81,1) eta landa eremuan %16,4a. Inkestatuen gehiengoari emea sexua ezarri zitzaion jaiotzean, %66,3a eta harra ezarri zitzaion %33,2ari. Ondoren, genero identifikazioari dagokionean, %31, a genero maskulinoarekin identifikatzen da, %58,9a genero femeninoarekin identifikatzen da eta aldiz, %7,9 a genero sistema binariotik kanpo kokatzen da. Beraz, aurreko galderari dagokionez, nahiz eta harra edo emea jaio, ikusi daiteke guztiak ez direla identifikatzen ezarri zitzaion sexu/generoarekin, %7,9a binarismo horretatik at kokatzen da. Bestalde, gehiengo handi bat cis-a da, hau da, %85,1a eta %7,5 transa. Galdera honen baitan, badaude portzentai txiki batzuk, “batere ez” eta “beste bat” erantzun dutenak. Inkestatuen gehiengoa lanean eta lanean eta ikasten ari dira momentu hauetan.

Hurrengo atalean, gehiago sartzen gara feminismo eta LGTBIQ+ kolektiboaren inguruko galderetan. Lehen bi galderetan ikusgarria egiten zait, %87,1 a feminismoaren alde kokatzen dela, baina gero bigarren galderan jende gutxiago kokatzen da feminista edo feminista aliatu moduan, hain zuzen ere, %80,2a. Deigarria eta apur bat kontraesankorra litzateke.. Inkestatuen %91,1a, gehiengo oso handi bat alegia, LGTBIQ+ kolektiboaren alde kokatzen da. Deigarria egin zait gehiengo handi batek borroka transa ezagutzen duela, hots, %87,1a, uste nuen portzentaia txikiagoa izango zela kasu honetan.

## 1. grafika

Feminismoaren alde zaude? ¿Estás a favor del feminismo?


202 erantzun



## 2. grafika

Feminista edo feminismoaren aliatua zarela kontsideratzen duzu? ¿Consideras que eres feminista o aliado feminista?


202 erantzun



### 3. grafika

LGTBIQ+ kolektiboaren alde zaude edo honen aliatua zara? ¿Estás a favor del colectivo LGTBIQ+ o eres aliado del mismo?

202 erantzun




2021 eko lege aurreproiektuari dagokionean, %65,8ak ezagutzen du, nahiko portzentai handiak alegia. Erdiak baino apur bat gehiago daki zer o zer lege transa deiturikoaren inguruan, hots, %56,9a. Bestalde, %70,8ak lege aurreproiektua irakurri du edota irakurtzeko interesa du. %63,8a beharrezkoa ikusten du lege trans baten onartzea eta %24,6ak ez du erantzuten. %87,1ak kontsideratzen du trans kolektiboa kaltebera dela, baina gero deigarria da, gehiagok uste dutela indarkeria sufritzen duten kolektiboa dela, hots, %92,6, beraz, hau ere apur bat kontraesankorra iruditzen zait, aurreko bi galderei dagokionean.

### 4. grafika

Trans kolektiboaren borroka ezagutzen duzu? ¿Conoces la lucha del colectivo trans?


202 erantzun



## 5. grafika

2021eko Espainiar Estatuko "Trans Legearen" aurreproiektua ezagutzen duzu? ¿Conoces el anteproyecto de Ley Trans del Estado español de 2021?


202 erantzun



## 6. grafika

Lege honen aurreproiektuaren inguruko zerbait dakizu? ¿Sabes algo del anteproyecto de esta ley?


202 erantzun



## 7. grafika

Beharrezkoa kontsideratzen duzu lege honen aprobazioa? ¿Consideras necesario aprobar esta ley?


199 erantzun



## 8. grafika

Beharrezkoa kontsideratzen duzu lege honen aprobazioa? ¿Consideras necesario aprobar esta ley?

199 erantzun






## 9. grafika

Trans kolektiboa kolektibo kaltebera dela uste duzu? / ¿Crees que el colectivo trans es un colectivo vulnerable?


201 erantzun



## 10. grafika

Trans kolektiboak gaur egun indarkeria eta zapalkuntza pairatzen dituela uste duzu? / ¿Consideras que el colectivo trans a día de hoy sufre violencia y opresión?

202 erantzun




Bestalde, harrigarria eta larritzekoa iruditzen zait %9,4ak, hots, inkestatuetatik 19 pertsonek pentsatzea transexualitatea nahaste mentala edota patologia bat dela pentsatzeak, baina hemen ere gehiago handi batek pentsatzen du hori ez dela horrela (%88,6a). Hurrengo galderetan sexua berrezartzeko ebakuntza eta hormonazioaren inguruan galdetzen zaie inkestatuei. %12,4ak (25 pertsona) pentsatzen du beharrezkoa dela ebakuntza egitea sexua eraldatu ahal izateko Erregistro zibilean. %80,7ak uste du ez dela beharrezkoa. Hormonazioari dagokionean, kontua apur bat aldatzen da, izan ere, %14,4ak, beharrezkotzat hartzen du hormonazioa sexua aldatu ahal izateko Erregistro zibilean. Aldiz, uste nuen gehiago izango zirela hormonazioaren beharra aldarrikatuko zutenak.

## 11. grafika.

Transexualitatea patologia edo nahaste mental bat dela kontsideratzen duzu?/¿Consideras que la transexualidad es una patología o un trastorno mental?


202 erantzun



## 12. grafika

Zure ustez, beharrezkoa al da sexua berresleitzeko ebakuntza bat egitea Erregistro Zibilean sexua aldatzeko?/¿Crees necesaria una operación de reasi...xo para el cambio de sexo en el Registro Civil?


202 erantzun



### 13. grafika

Zure ustez, beharrezkoa da tratamendu hormonalak egin behar izatea Erregistro Zibilean sexua aldatzeko?/¿Crees necesario un proceso de tratamie...al para el cambio de sexo en el Registro Civil?

202 erantzun




Adin txikikoei dagokionean, lege berriaren bidez, hurrek eta nerabeek beren sexua aldatu ahal izango dute erregistro zibilean. 16 urtetik gorakoek legezko tutoreen baimenik edo onespenerik gabe egin ahal izango dute. 14 urtetik beherako pertsonen, haien legezko ordezkarien onspenaren eta adostasunaren bidez. 12 urtetik beherako pertsonen izena bakarrik aldatu ahal izango dute, eta ez sexua. Proposamen honen alde kokatzen da %54,2a eta ezekoa diote %29,9a, hots, 60 pertsona, kopuru handi bat. Adin txikikoekin erlazionatuta dago ere hurrengo galdera, %31,8ak (64 pertsona) uste du hurrek eta nerabeek ez dutela helduen eskubide bera beren nortasuna berresleitzeko. Aldiz, %57,7a honen alde kokatzen da. Erantzun hauek ikusita, argi dago adin txikikoei dagokionean jendea ez dagoela hain ados legean proposatutakoekin eta polemika hori ematen dela adin txikiko pertsonen dagokionean.

### 14. grafika


Lege berriaren bidez, hurrek eta nerabeek beren sexua aldatu ahal izango dute erregistro zibilean. 16 urtetik gorakoek legezko tutoreen baimenik edo...su sexo. ¿Estas a favor de esta nueva propuesta?

201 erantzun



## 15. grafika


Zure ustez, haurrek eta nerabeek helduek duten eskubide bera dute beren nortasuna berresleitzeko? ¿Crees que los niños, niñas, niños...sonas adultas para poder reasignar su identidad?  
201 erantzun



Gehiago bat genero autodeterminazioaren alde kokatzen da, alegia, %78,1 eta %78,1ak ezagutzen du feminismoaren sektore ezberdinetan emandako gatazka trans auzia dela eta. %72,3a uste du legeak ez dituela ondorio kaltegarriak izango emakume cisgeneroengan eta %12,9 ak baiezkoa dio. Hurrengo galderan, gehiago handi batek uste du trans kolektiboa babesten ez duen pertsona ezin daitekeela feminista izan, hartara, %65,7ak hori dio. Aldiz, inkestaturen %20,9 arentzako posible izango litzateke. Bestalde, inkestan perpaus bat azaltzen da, nun esaten den sexua errealitate bat dela, naturala alegia, eta ez duena inolako eskubiderik ukatzen, generoa dela sexu hierarkia eraikitzen duena. Galdera honi dagokionean, argi ikusten da iritzi zatiketa inkestaturen artean. %39,8a ados dago perpausak dionarekin, %27,9a ez dago ados eta %32,3ak ez daki edota nahiago izan du ez erantzun, azken hau suposatzen dugu askok ez dutela perpausa modu egoki batean ulertu eta beste askok ez dutela oso argi auziari dagokionean. Aldiz, hurrengo galderan %62,5 ak uste du sexu biologikoaren ukapenak ez duela eragin negatiborik emakume cisgeneroengan eta %13ak baietz uste du.

## 16. grafika


Genero autodeterminazioaren alde kokatzen zara? ¿Estas a favor de la autodeterminación de género?  
196 erantzun



## 17. grafika

Uste duzu "lege transak" negatiboki eragin dezakeela emakume cisgeneroengan? /¿Crees que la "ley trans" puede afectar negativamente a las mujeres cisgenero?


202 erantzun



## 18. grafika

Sexu biologikoaren ukapenak eragin negatiboak ditu emakume cis generoengan? ¿Negar el sexo biologiko afecta negativamente a las mujeres cis genero?

200 erantzun




Genitalen inguruan galdetzen denean, inkestaturen %87,1ak uste du genitalek ez dutela pertsona baten identitatea definitzen eta %8,4ak baietz dio, hain zuzen ere, inkestaturen arteko 17 pertsonak. Kirol lehiaketan inguruan beste galdera polemiko bat burutu da eta honetan ere argi ikusi dira inkestaturen zalantzak eta iritzi banaketa. Izan ere, %54ak uste du baietz, %23,8ak ezetz eta %22,3ak ez daki edota ez du erantzun. Ondorioz, argi ikusten da zalantzak piztu direla horrelako kontu batean inkestatu askorengan, gainera, honako hau komunikabideetan eta sare sozialetan pil-pilean dagoen gaia da egunero, gai oso polemikoa eta eztabaida handiak sortzen dituena.

## 19. grafika

Genitalek pertsona baten identitatea definitzen dute?/¿Los genitales definen la identidad de una persona?


202 erantzun



## 20. grafika

Zure ustez, trans emakumeek cis emakumeekin batera lehiatu beharko lukete kirol-lehiaketetan?/  
¿Consideras que las mujeres trans deberían de com...s mujeres cis en las competiciones deportivas?

202 erantzun




%80,7ak benetan beharrezkotzat hartzen du lege trans bat, gehiengo handi batek hain zuzen ere eta %72,8ak uste du mugimendu feminista eta LGTBIQ+ mugimenduak eskutik lotuta joan beharko luketela, hau da, amankomuneko bide eta borroka bat jarraitu beharko luketela.

## 21. grafika

Gaur egun benetan beharrezkoa ikusten duzu trans lege bat? /¿Crees que es realmente necesario a día de hoy una ley trans?


202 erantzun



## 22. grafika

Mugimendu feministak eta LGTBQ+ mugimenduak eskutik helduta joan beharko lukete? /¿El movimiento feminista y el movimiento LGTBQ+ deberían de ir de la mano?

202 erantzun



Inkestaren azkeneko galderak aldiz, idaztekoak izan dira, eta bertan inkestatuek haien iritziak bota dituzte. Horrelakoa izan den lehenengo galderan, inkestatuei galdetu zaie zein izan beharko lukeen feminismoaren subjektu politikoa. Hemen, erantzun ezberdinak egon dira,, hala ere, gehien errepikatu direnak honakoak izan dira: Emakumeak, emakumeak\*, emakume cis zein transak, emakume oro, “Toda persona disidente del cisheteropatriarcadoracial”,

“Erregimen heteronormatiboaren boterepean (hau da gizon cisen) dauden eta hortik ateratzen diren gorputz guztiak” ... etb. Ondoren, TERFeta feminista klasikoagoen inguruan ari garenez, egon da jendea zeinak honakoa erantzun duen: emakume cisak. Ondoren, aipatzekoa da ere jasotako erantzun matxista batzuk, hala nola: “El feminismo debería ser relegado al ostracismo. Es una ideología siniestra (como todo lo que deriva del marxismo cultural) es nocivo para la sociedad.”, “Es todo una idiotez y alejado de los problemas reales de las mujeres y del mundo”, “Ninguno. El feminismo actual está completamente politizado y está destinado al fracaso.”... etb horrelako. Hala ere, aipatu beharra dago minoria izan direla horrelako erantzunak.

Ondoren, aipatutako polemikez gain, inkestatu askok adierazi dute faltan bota dituztela hainbat gai, edo erlazionatuak egon beharko luketela guzti honekin, hain zuzen ere, aipaturiko lege transean azaltzen ez direnak, hala nola, aldarrikatzen da binarismotik egiten dela analisia, binarismo horretatik at dauden genero eta identitate disidenteak kontuan izan gabe. Bestetik, klase borrokaren auzia ere sarritan aipatua izan da. Hauekin batera ere, jendeak zerikusirik ez duten gauzak idatzi ditu eta iruzkin matxistak eta transfoboak ere eman dira.

Feminismoaren baitan, ikertzen ari garen alde bietako erantzunak eman direla esan daiteke. Hala nola, honako hauek:

*“Una mujer trans puede ser feminista y las mujeres cis no debemos sentirnos amenazadas por ello. Ambos son colectivos los cuales sufren violencia y son menospreciados por algunos, sin embargo, considero que las mujeres cis nacen con los prejuicios y adversidades de ser mujer, mientras que las mujeres transgénero las experimentan más tarde en su vida.”*

*“Me parece misógino como amenazan de muerte a las llamadas terfs o quien quiera que piense críticamente el lobby transexual. Cuando el verdadero enemigo es el patriarcado. Es muy fuerte como atacan más duramente a las mujeres que critican el transactivismo que a los hombres en cuestión de cualquier otra cosa. Me parece muy fuerte la verdad.”*

*“Binarismoan oinarritzen dugu dena norbanakoak alde batean edo bestean kokatzera behartuz”*

*“Muineko arazoa erregimen heteronormatiboaren bidez erreproduzitzen den binarismoan dago. Hein honetan, lanketa eta heziketa egin beharko litzateke batean eta bestean “kabitzen ez diren” gorputz eta identitate horien errealitateak ikusgai egiten.”*

Inkesta honen bitartez, posible izan dugu aztertzea jendearen iritzia auziaren inguruan eta ikertu ahal izan dugu zein den osotasunean gazteen iritzia.



### 5.3 Elkarrizketaren analisisia

Bi elkarrizketatuak Donostiarrak dira eta amankomuneko militantzia izan dute Plazandreok alderdi politikoan. Gainera, biek bide luzea egin dute militanzia feministan haien bizitzetan zehar. Aipatu beharra dago ere, transfeminismoaren postura babesten duen elkarrizketatua feminista klasikoa baino gazteagoa dela, eta horrek ere influentzia izan dezakeela emandako erantzunetan, izan ere, tradizio eta olatu feminista ezberdinetatik datozelako hain zuzen ere. Bestalde, LGTBIQ+ mugimenduari dagokionez, “A”-k esan digu bera izan zela 80. hamarkadan Lesbianas Feministas de Gipuzkoa sortu zuen kideetako bat. Josebe Iturriozek aldiz, Medean ibili zen, beste kide batzuekin sortutako plataforma feminista eta lesbiana erradikal eta transfeministek osatua. Beraz, esan genezake biek izan dutela lotura estu bat LGTBIQ+ mugimendurekin eta LGTBIQ+ pertsonekin.

Sexu/generoaren inguruan galdetzerakoan, erantzunak guztiz ezberdinak izan dira. “A”k argudio biologizistak erabiltzen ditu sexua azaltzeko eta honekin batera juridikotasuna erabilita argudiatuko du, izan ere, bere esanetan lege batez mintzatzen ari garelako. Honakoa dio “A”-k elkarrizketan: *“A pesar de que pueda parecer simplista, para mi el sexo es lo que define nuestra especie, somos una especie sexuada. ¿Y eso qué significa? Básicamente, pues que para reproducir la especie necesitamos dos sexos. En esa pregunta que me haces, ¿Que es el sexo? Un dato biológico, material. Como, ¿Que es una pierna? Un pedazo de carne con unos huesos tal, determinados. Eso no quiere decir nada más que eso”*

Aldiz, generoaren inguruan honakoa esango digu: *“¿Y qué es el género para mi? Sobre ese dato material, ideológico, la sociedad, el patriarcado, ha construido un sistema de desigualdad, otorgando a uno de los sexos de esa especie una posición de desventaja, de subordinación, explotación, bueno llámale como quieras...”* eta honako hau ere dio: *“El género es un concepto analítico que nos permite explicar científicamente (cuando digo científicamente, digo académicamente) con cierta objetividad, como se conoce la desigualdad, no la diferencia, por qué diferentes somos todos, cada cual y sus sentimientos y pensamientos.”*

Josebe Iturriozek beste erantzun guztiz ezberdin bat emango digu sexu/generoaren inguruan, “txanpon baten bi aldeak” metafora erabiliko du honi buruz hitz egiteko. Berak azalduko digu sexua eta generoa ezin direla ulertu banatuta: *“Naturata eta kultura horrela ulertzea, hau da, zuk pentsatzea elementu naturalak eta kulturalak banatu egin daitezkeela. Zuk pentsa, nik eskatzen dizudala zure elementu natural guztiak toki batean edo nonbaiten sartzea eta kulturalak beste batean. Ezin da, ezinezkoa da, hau da, natura eta kultura bateratuak daude. Gizarteak sortzen dituen esanahiak eta estrukturalak sexuan eragina dute eta alderantziz”* eta honako hau ere plazaratuko digu: *“Ezin dugu banatu sexua generotik eta are gehiago, ezin dugu banatu garai batean nun teknologikoki interbenitu egiten dugun gorputza eta produzitzen ditugun elementu sexual naturalak gure artean ulertzeko”*

Beraz, “A”k esango digu sexua zerbait biologikoa dela eta horretarako naturalizazio horretan oinarritutako argudioak ematen dizkigu eta generoa aldiz, hierarkizazio hori azalduko digu eta esango digu generoa kategoriatik analitiko bat dela. Bestalde, Josebe Iturrioz transfeministak esango digu, sexua eta generoa ez dela banatu daitekeen dikotomia bat, izan ere, bere aburuz, erabat gurutzatuta dauden kontzeptuak dira.

Galdera orokor hauek eta gero, gehiago abiatu gara lege aurreproiekturen edukira eta hemen ere iritzi guztiz ezberdinak izan dituzte elkarrizketatuek. Lehena eta garrantzitsuenetako bat genero autodeterminazioaren ingurukoa izan da. “A” rentzako genero autodeterminazioa ez da existitzen eta kontraesan bat izango da: *“No creo que existe la autodeterminación de género. Cuando hemos empezado a hablar, cuando en la adolescencia a nosotras nos decían, si eres niña no puedes salir, y tú decías: ah pues yo quiero ser niño, yo quiero ser como mi hermano. Lo bueno es ser niño, pues yo quiero ser niño. ¿Eso es autodeterminarse?”* Gainera, honekin batera gehituko du genero autodeterminazio kontzeptua ez dela feminista: *“Bueno, digo que dentro de la teoría queer, se ha construido ese concepto que me parece muy bien, pero no es feminsita, diría yo”*. Berarentzako generoa ez da erabakitzen, generoa inposatua da, nahiz eta gero beste gauza bat izan ados ez egotea inposatutako generoarekin.

Josebe Iturriozek genero autodeterminazioaren inguruan honakoa esango digu: *“...Autodeterminazioaren harira, pasada bat izan da nola feminista batzuk eta horrekin plataforma, bueno, feminista transfobo batek, nola argudiatu duen generoen edo sexuen kontrol disziplinario bat izan behar dela.”* Gainera, honekin batera salatzen du generoaren hertsitasuna eta aldarrikatzen du badaudela genero disidentziak ezarritako sistema binariotik kanpo, hau da, badaudela pertsonak zein gorputzak norma cisheteropatriarkal bitarrear lekurik ez dutenak.

Adin txikikoekin auziarekin erantzunak ere guztiz ezberdinak izan dira. “A”k barbaridade bezala kalifikatzen du eta dio errealitate transexuala oso anitza dela eta arriskusua dela autodeterminazio hori baimentzea eta gehiago adin txikikoetan, izan ere, berak honakoa dio: *“...Que no quiere decir que haya que controlar el proceso, hay que acompañar con expertos. Pero si inician ese proceso, y luego que ya se están dando así de casos en chavalas, por qué, se están dando muchos más casos de niñas que quieren ser niños y entonces, la desconversión ¿No? Y en el Reino Unido ya hay un caso, que además, claro, se denuncia al ministerio de sanidad, porque te has sometido a un tratamiento sin ningún informe. Un tratamiento físico que tiene mogollón de efectos sobre tu cuerpo... osea, porque no es, el resultado final que tu quieres.”* Honekin batera dio modu asko daudela neska zein mutil izateko, baina ezin duguna egin dio, da gure gorputzak gaizki tratatzea. Auzi honi dagokionez, Josebe Iturriozek iritzi guztiz ezberdina adierazi digu, batez ere izen kontuekin, esaten digu NAN-a kontrol elementu argia dela eta erregistro kudeaketa horrek ez zuela inolako arazorik suposatu beharko. Bera horrela mintzo da: *“Izenekin, demagun, izan daitezke kausa asko izen aldaketa bat emateko. Zergatik da hain inportantea niri “Miren” jarri banaute eta nik “Mi” izan nahi badut, hori da, generorik gabeko izen bat, eta ez badute ez emakume eta ez gizonarekin, ez banaiz lotzen, zergatik hori azaldu behar da nire NANean ez?”*

*Ni beti behartua nago, esatea emakumea ala gizona naizen eta lotua egon behar du nire NANarekin*". Ikus dezakegunez berriro genero ez bitarren aldarrikapena egiten du eta dio "trans" aterki horren barruan genero identitate oso anitzak daudela.

Jarraiki, trans legea eta genero indarkeriaren aurkako legearen inguruan mintzatu gara eta beste behin, iritziak guztiz ezberdinak izan dira. "A"k dio legegintzaz guztiz kaltetuko dituela emakumeak indarkeriari dagokionean eta baita kirol lehiaketetan ere: *"..La ley desprotege a las mujeres. Efectivamente puede ser excepcional o lo que quieras, pero basta cuando estamos viendo ahí ámbitos, el de la violencia es uno clarísimo y en el deporte."* Josebe Iturriozek honakoa esango digu "krudelkeria itzela" iruditzen zaiola esatea trans legeak genero indarkeria legearekin talka egiten duela eta honekin batera bere iritzia plazaratzen digu, esanez: *"Genero indarkeriaren kontrako legea atera zenean, pertsona askok kritikatu genuen lege hori erabat heteronormatiboa dela. Bakarrik onartzen ditu indarkeria horiek emakumeen kasuan pareja edo pareja ohia denean, hori lehenengo gauza, ez? Kontutan izanda zer hertsia den, hain zuzen ere, emakumeen behar dituzten zerbitzuak eta aktibatzeak, iruditzen zait pasada bat esatea, transexualitatearen legea horren kontra egingo duenik."* Berak beharrezkoa ikusten du legearen zabaltzea eta dio indarkeria matxistaz hitz egin beharko genukeela eta modu egoki batean barne bildu noraino iristen den honako hau, dioenez, transfobia ere indarkeria matxista delako.

Lege transari dagokionean, Espainiar gobernuan eman diren gatazken inguruan ere iritzi nahiko ezberdina adierazten dute elkarrizketatuek. Josebe Iturriozek dio interes partidistak daudela eta negoziazioan gauza asko atzean utzi direla lege trans eta pertsona transen kalerako eta aldiz, "A"k adierazten digu PSOEk Podemosen bultzatutako gauza asko onartu dituela. Beraz, argi eta garbi esan daiteke elkarrizketatutako bi pertsonak auziarekiko oso iritzi ezberdinak dituztela.

Guzti hau aztertuta, H.4 hipotesiak dio, feminismo klasikoa eta transfeminismoa defendatzen dutenen artean ez da amankomuneko puntu esanguratsurik emango, eta horrela ematen dela esan genezake, izan ere, ez da inolako amankomuneko puntu minimorik eman. Hartara, hipotesi hau baieztatu dezakegu.

TERF terminoari dagokionean ere, iritzi ezberdinak adierazten dituzte, hots, "A"rentzako TERF terminoa irangarria da eta honako hau esaten digu Iturriozek ez bezala: *"Bueno, pues que es un insulto ¿No? Que es un insulto terrible. Yo por ejemplo soy una TERF. Bueno, yo soy por quien lo considera y además el totalitarismo solamente pensábamos que venía por la derecha pero puede venir por cualquier lado ¿no? Entonces, creo que el término ha surgido como un insulto y no como una descripción. A mi me da igual la verdad. Para mi el término TERF es un insulto y responde a esa voluntad"* Aldiz, Josebe Iturrioz, transfeministak honako dio TERF kontzeptuaren inguruan: *"...TERF edo transfoboak, pentsatzen dudana da, momentu honetan feminismo zuri baten inguruan antolatzen ari direla emakume batzuk eta momentu honetan bere prioridatea dela gorputz transexualen kontra jotzea, orduan, iruditzen zait benetan zuk pentsatzen baduzu transexualak ezin daitezkeela mugimendu*

*feministan egon... Iruditzen zait trans eskluienteak direla, orduan, ehh... iraina, osea, hau da, jomugan jartzen ari bazara, transexualitatea, eta ez baduzu espazio politikorik partekatu nahi, nola deitzen diogu horri? Nik esango nuke dela feminismo transfobo bat, erabat oximoron bat iruditzen zait..."*

Auziaren inguruan gehien kezkatzen dienaren inguruan galdetzerakoan biek amankomunean diote mugimendu feministaren zatiketa bitan, honakoa izango da amankomunean duten puntu bakarra. Aldiz, "A"k dio lehen gehiago kezkatuta zegoela guzti honekin, baina badaudela gauza batzuk ezin zaiena uko egin eta eraikiko direla sare berriak. Josebe Iturriozek bere aldetik esango digu kezkatuta dagoela zatiketarekin eta sortutako minarekin.

Eztabaidarako espazioari dagokionean, kointziditzen dute ere esanez zaila dagoela eztabaida serioak edukitzea, "A"k terminologia azpimarratzen du, honakoa esanez: *"Como cada una utiliza la terminología como le da la gana y con una inconsistencia y con un esto... lo primero para comunicarte tienes que partir de un lugar compartido, bueno ¿Por esto entiendes esto? si, no... y si no lo compartes, quiero decir, si ese movimiento es otra cosa pues porque seguir pidiendo lugares compartidos cuando encontremos el camino y si tenemos intereses comunes pues ya iremos juntas otra vez y si no pues que le vamos hacer."* Trásfeminismotik Iturriozek azpimarratzen ditu sare sozialetan emandako eztabaidak: *"Osea, orain momentu honetan, "pues que tu, pues tu eres una puta TERF!" eta "y tu eres un hombre eta ezin zaitezke mugimenduan egon!" edo "proxeneta bat zara, ez zarelako abolizionista."* Osea, argudio horiek ez dira erabili inoiz gure artean nahiz eta prostituzioaren abolizionistak egon, abolizionistak ez ginenak... batera egon gara eta beste modu batera planteatzen genituen gatazkak. Orain gatazka horiek erabat... jendea kanporatu, plataformak sortu, boikoteatu besteen lana, osea... oso... erabat determinatua dago indarkeria politiko batengatik."

Martxoak 8aren inguruko galderan, "A"k adierazten digu martxoak 8 emakume guztientzako espazioa dela, emakume transak barne esaten digunez, baina honakoa azpimarratzen digu... *"Los derechos de las personas transexuales, por supuesto y de las mujeres transexuales pues vale, dar una reivindicativa, y de las mujeres proletarias, y de las mujeres negras y de las mujeres blancas y de las mujeres heterosexuales y de todas las mujeres claro que si, ahora si para estar a favor de los derechos de las mujeres trans, nosotras tenemos que dejar de existir pues entonces no."* Iturriozek bere aldetik, adierazten digu martxoak 8 beti izan dela borroka eguna, baina azken urteetan, hain zuzen ere, azken martxoak 8an ez dela manifestaziora joan emandako transfobia dela medio pertsona zein talde batzuen eskutik eta geroz eta gatazka gehiago ematen direla esaten digu, esaterako "bollera" hitzaren erabilerarekin beste batzuen artean. *"Horregatik, iruditzen zait bai ematen ari dela da, lotura hori, ez? Transfoboa, abolizionista eta arrazista, heteroa, cis... Osea, elementu batzuk nun gailentzen ari den feminismo hegemoniko bat eta konfliktiboa izaten ari da eta nik bezala badakit beste lagun trans asko ez direla martxoak 8ra joaten beldurra ematen dielako..."*

Azkenik, elkarrizketatuei legearen hutsuneen inguruan galdetu zaie, eta orain arte bezala, erantzunak oso ezberdinak izan dira. Iturriozek honakoa esan digu: *“Gauza pilo bat dira, ez? Eh... batetik, autodeterminazioaren kontzeptua ez txertatzea terriblea da. Terminologikoki nik apurtuko nuke “transsexual” hitzarekin eta “trans” hitza erabiliko nuke, nun “trans” horretan eh... trantsizio maila oso ezberdinak onartzen diren eta gero ba... prebentzioan eta... gizarte zerbitzuetan eta askotan gauzak esaten dira baina ez dira materializatzen, ez? Aurrekontuak, zenbat diru txertatuko duzu honetan, ez? Askotan iruditzen zait, adibidez, “disforia de genero” diagnostikoa kendu egin da, baina gero prozesuak, hau da, zuk, zure trantsizioa egiteko genero unitate batera joan behar bazara, eta ez badira desmantelatzen eta ez bada aldaketa transbertsal bat ematen, azkenean bidea, mantendu eta bermatu egiten da, ez? Orduan, medikuki pertsona transak, ez gara, ez dugu behar toki bat nun “rarito” guztiak juntatzen garen eta hor dago psikiatra bat, hor dago endokrino bat, baizik eta behar duguna da gure anbulategira joan, kontuan izanda guk hartzen ditugun hormonak direla cis pertsonak ere hartzen dituzten hormonak, behar duguna da adibidez, eta horregatik hitz egiten du baliabideetaz, zergatik medikuntzan ez da gai hau txertatzen karreran? Irakaskuntzan edo CAP kurtsuetan edo... ez da txertatzen gaia, ez? Emm... gizarte zerbitzuetan ere, ez dira martxan jartzen akonpainamendu protokoloak edo.. ez? Edo beste elementu batzuk, eta gero ba... adin txikikoekin egin dena, zergatik eta mugatu egin dira adin txikikoen eskubidea. Ba iruditzen zait, nahiko terriblea, osea...”*. Ondoren ere, azpimarratzen digu auzietan irakurketa transfeminista txertatzearen beharra, esaterako genero indarkeria legean. Esango digu legeak ezin direla modu “estanku” batean landu eta lotura diskurtsibo, politiko, teoriko eta praktikoak egin behar direla, alegia begirada konplejizatu behar dela ikertu eta detektatzeko noraino iristen den indarkeria matxista.

“A”k bere aldetik, galdera honi dagokionean mantenduko du genero autodeterminazioaren aurkako postura. Eta deklarazio hauek egiten ditu gaiaren inguruan: *“Yo creo que con la ley 2007 se puede igual agilizar trámites, favorecer eso para todas las leyes y para la protección de todos los derechos, y desde luego tiene que estar... Osea no lo decides tú, eso es como te sientes... Yo puedo decir “mira yo hoy me levanto y me siento un hombre”, entonces voy al registro y digo “oiga póngame que yo me siento un hombre” eso es lo que están diciendo que se puede hacer, yo no digo que la gente lo vaya a hacer, pero la ley permite eso y a los seis meses digas, “ay me vuelvo a sentir mujer” voy y me... Eso es lo que permite... Eso en términos jurídicos es inaceptable.”*

Beraz, argi eta garbi atera dezakegun ondorio nagusia da ez daudela ados ezertan eta mugimendu feministan arrail garrantzitsu bat sortu dela auzi hau dela medio.

## 6) ONDORIOAK

Behin analisisia burututa, ondorio nagusi batzuk atera daitezke ikusitakoaren arabera. Beraz, inkesta osotasunean aztertuz, hipotesien egiaztatzea joko dut. H.1 hipotesiak zihoen, gazteen artean gutxi izango zirela feminismo klasikoago bat edo trans baztertzailea defendatzen dutenak, hots, gehiengo lege trans baten alde egongo zela izan da lehen hipotesia. Erantzunei erreparatuta hipotesi hau modu argi batean baieztatu daiteke, inkestari erreparatuta gehiengo bat trans lege baten alde jartzen da eta trans kolektiboa babesten du orokorrean baita feminismoaren baitan ere. Aldiz, ikertu moduan, trans baztertzailea den jendeak ere erantzun du inkestari. Hauetaz gain, erantzun matxistak ere izan direla azpimarratzekoa da.

Bigarren hipotesia aldiz, ezin du baieztatu, izan ere, H.2 hipotesiak honakoa dio: Askok ez dute jakingo lege transaren edukiaz eta ez dute alderdi legislatibo horren interesik izango. Aurreikusitakoaren aurka, asko izan dira legearen inguruan dakitenak, hain zuzen ere, %65,8ak ezagutzen du eta hau irakurtzeko interesa edo irakurrita duela %70,8 adierazi du. H.3 hipotesiak dio gazteen alde batek elementuak eta jorrazeko gaiak falta direla usteko du lege transaren baitan, hemen ikusi da, nola inkestatutako gazte askok kontuan hartu nahi dituzten lege eta auziaren baitan beste hainbat elementu haientzat garrantzitsuenak direnak, hala nola: sistema binariotik kanpo dauden genero ezberdinak, prostituzioaren auzia, heteronormatibitatekanpo daude postura eta identitate guztiak kontuan hartzea, klase borroka auzia... Ondorioz, hirugarren hipotesi hau ere baieztatu dezakegu.

Beraz, orokorki esan genezake inkestatuen gazteen gehiengoak irakurri duela edo eta jakintza maila minimo bat duela lege transaren inguruan. Gainera, gehiengo handi bat lege trans baten alde kokatzen da eta transfeminismoak bultzatzen dituen postura politikoak babesten ditu baina uste dute ere legeari eta auziari orokorrean elementuak falta zaizkiola gaiaren tratu egoki bat egin ahal izateko.

Inkestaren emaitzak eta honi lotutako hipotesiak aztertuta, beharrezkoa da ere elkarrizketarekin lotura dutenak baieztatzea. H.4 hipotesiak dio, feminismo klasikoa eta transfeminismoa defendatzen dutenen artean ez da amankomuneko puntu esanguratsurik emango, eta horrela ematen dela esan genezake, izan ere, ez da inolako amankomuneko puntu minimorik eman. Hartara, hipotesi hau baieztatu dezakegu.

H.5 hipotesiak dio feminista klasikoak irain moduan hartuko duela TERF terminoa eta honako hau ere baieztatu dezakegu. Izan ere, horrela mintzo da "A" elkarrizketatuak, hots, feminismo klasikoago bat defendatzen duenak adierazi digu berarentzako terminologia hori iraina dela. Aldiz, Iturriozek guztiz kontrakoa esan digu.

H.6 hipotesiak dio, transfeminismoa eta teoria querra defendatzen duen elkarrizketatua ez dela guztiz ados egongo lege transarekin nahiz eta agian lehen pauso moduan hartzen duen.

Kasu honetan, baieztatu dezakegu hori adierazi digulako eta Josebe Iturriozek. Legeak hutsune garrantzitsuak ditu.

Aztertutakoa aztertuta, atera daitekeen ondorio garrantzitsuenetako bat, zatiketa handi bat eman dela da mugimendu feministaren baitan trans auzia dela eta. Feminismoan urteak daramatzaten militanteek bi postura oso ezberdin eta polarizatuak adierazten dituzte nun ia ez dagoen amankomuneko punturik gaiarekiko, iritziak guztiz kontrakoak dira. Gainera, honi gehitu behar zaio sare sozialetan eta horrelako plataformetan ematen diren eztabaidak, nun askotan eztabaida erabat hutsak diren eta postura polarizazio hori areagotzen den eztabaida serio batetarako lekurik utzi gabe. Ondorioz, oso zaila sortatzen ari da auziaren inguruko eztabaida serio bat sortzea eta adostasunetara iristea.

Alde batetik, feminismo erradikaletik TERF korrante hori sortuta, nun sortu diren talde eta plataforma batzuk feminista transfoboak direla eta gorroto eta ukapen bat sortu den trans pertsonetikiko kasurik erradikalenetan eta beste batzuk postura malguagoak defendatzen dituzten feminismo klasikoago batetik. Gainera, ikusi dugunez ere, bi aldetatik eta debate polarizatu horretan alde batetik eta bestetik irainak eta boikota sortu da besteen lanarekiko eta egoera oso zaila bilakatu da eta ia konponezina. Mugimendu feminista guztiz zatitu da.

Gehitzekoa da ere, Espainiar gobernuko alderdi politikoei dagokienean ere, zatiketa garrantzitsu bat eman dela. Izan ere, Podemosek postura aurrerakoiena babesten du ikusi moduan, eta PSOEk feminismo klasikoago baten alde jotzen du. Honekin batera, kontuan hartzekoa da, alderdien barnean ere ezadostasunak sortu direla, izan ere, bi posturatan kokatzen diren feministak topatu ditzakegu. Ondorioz, esan genezake honek ere alderdietan zatiketak eta eztabaidak sortu dituela nahiz eta Podemosek postura aurrerakoiagoa izan orokorrean eta PSOEk klasikoago bat. Hauei ere gehitu behar zaie emandako interes partidistak.

Gazteen iritziari dagokionean, esan genezake aztertutakoaren arabera gehiengo handi bat kokatzen dela trans lege baten alde eta gehiengoak ez duela babesten feminismo klasikoago hori, izan ere, gehiengoak ikusi moduan, postura transfeministagoak hartzen ditu.

Aldiz, Iturriozek eta baita inkestatutako gazteek ere pentsatzen dute hutsune nabariak ematen direla proposatzen den lege transean. Esaterako, ez dira barne biltzen legearen baitan genero ez bitarraren aukera eta proposatzen den transexualitatearen fokuratzea oso heteronormatibo eta bitarra da. Aldarrikatu nahi da ez dagoela soilik aukera hori, badaudela hain zuzen ere identitate anitz ezarritako espektro horretatik kanpo.

Beraz, ikusten da lanketa handia dagoela aurretik eta espazioak sortu behar direla eztabaidarako guztien hobe beharrez, orain lehentasuna baita trans pertsonak babestea eta haien eskubide guztiak bermatzea eta feminismoak haien eskutik joan behar du.

## 7) BIBLIOGRAFIA

- Alcoff, Linda. (2022). Feminismo cultural vs. Post-estructuralismo: la crisis de identidad de la teoría feminista. *Debats: Revista de cultura, poder i societat*, (76), 1-21.
- Álvarez, Ángeles. (2020ko ekainaren 13a). Contra el borrado de las mujeres. *El Diario*.  
[https://www.eldiario.es/opinion/tribuna-abierta/borrado-mujeres\\_129\\_6102064.html](https://www.eldiario.es/opinion/tribuna-abierta/borrado-mujeres_129_6102064.html)
- Álvarez, Pilar. (2021eko ekainaren 29a). Así queda la 'ley trans' en España: un "paso de gigante" para el colectivo LGTBI, según el Gobierno. *El País*.  
<https://elpais.com/sociedad/2021-06-29/asi-queda-la-ley-trans-en-espana-mas-alla-de-la-autodeterminacion-de-genero.html>
- Álvarez, Pilar. (2021eko otsailaren 3a). La 'ley trans' abre una nueva brecha entre PSOE y Unidas Podemos en el Gobierno. *El País*.  
<https://elpais.com/sociedad/2021-02-03/la-ley-trans-abre-una-nueva-brecha-entre-psy-e-y-unidas-podemos-en-el-gobierno.html>
- Álvarez, Pilar. (2021eko ekainaren 29a). España abre la puerta a la autodeterminación de género tras un duro pulso entre los socios del Gobierno. *El País*.  
<https://elpais.com/sociedad/2021-06-29/espana-sera-el-decimosexto-pais-del-mundo-e-n-permitir-la-autodeterminacion-de-genero.html>
- Alternatiba. (2021eko otsailak 4a). "Políticas sexuales, sexualidades políticas" con Miquel Missé. [Bideoa]. Youtube. [https://www.youtube.com/watch?v=YnE-I\\_SO69Y](https://www.youtube.com/watch?v=YnE-I_SO69Y)
- Antena 3 Noticias. (2021eko ekainaren 4a). *Las reticencias de Carmen Calvo con la 'ley trans' de Irene Montero: "Me preocupa que se elija el género solo con la voluntad"*.  
[https://www.antena3.com/noticias/espana/reticencias-carmen-calvo-ley-trans-irene-montero-preocupa-que-elija-genero-solo-voluntad\\_20210204601bc85911b1180001ccf64b.html](https://www.antena3.com/noticias/espana/reticencias-carmen-calvo-ley-trans-irene-montero-preocupa-que-elija-genero-solo-voluntad_20210204601bc85911b1180001ccf64b.html)
- Báez, María. (2015). La transexualidad desde la mirada de la sociología del cuerpo. *Salus*, (19), 34-40.
- Bernal, César. (2006). Metodología de la investigación. *Pearson Educación*.
- Butler, Judith. (2007). *El género en disputa: El feminismo y la subversión de la identidad* (4.ª ed.). Paidós.
- Calderón, Lilia. (2011). El diseño metodológico. [Diapositiva de PowerPoint]. Investigación Educativa.  
[https://eduvirtual.cuc.edu.co/moodle/pluginfile.php/258462/mod\\_resource/content/1/DISE%C3%91O\\_DISEÑO\\_DE\\_INVESTIGACIÓN-METODOLOGÍAMETODOLOGICO-CALDERON.pdf](https://eduvirtual.cuc.edu.co/moodle/pluginfile.php/258462/mod_resource/content/1/DISE%C3%91O_DISEÑO_DE_INVESTIGACIÓN-METODOLOGÍAMETODOLOGICO-CALDERON.pdf)



- Carvajal, Álvaro., Piña, Raul. (2021eko ekainaren 29a). Irene Montero celebra la "histórica" Ley Trans con elogios al ministro de Justicia e ignorando a Carmen Calvo. *El Mundo*.  
<https://www.elmundo.es/espana/2021/06/29/60db17dae4d4d8db3e8b4616.html>
- De Beauvoir, Simone. (2017). *El Segundo sexo*. Ediciones Cátedra.
- Despentès, Virginie. (2007). *La teoría king kong*. Editorial Melusina.
- Duval, Elizabeth. (2021). *Después de lo trans. Sexo y género entre la izquierda y lo identitario*. La Caja Books.
- Espasandín, María Cecilia. (2018). Articulaciones entre marxismo y feminismo: ayer y hoy. *Revista Katálysis*, (21), 584-593.  
<https://doi.org/10.1590/1982-02592018v21n3p584>
- Esteban, Rocío. (2021eko ekainaren 28a). Estos son los puntos más polémicos sobre la ley Trans que debe conocer. *La Razón*.  
<https://www.larazon.es/espana/20210628/bh3dgp62hig4rcukgoxrdd2ce.html>
- Facultad Libre. (2019ko abuztuaren 25a). *El género en disputa | Por Darío Sztajnszrajber*. [Bideoa]. Youtube.  
<https://www.youtube.com/watch?v=uwkRrgCGwiA>
- Fernández, Melissa. (2021). ¿Feminismo transexcluyente? Breves apuntes en torno al "sexo". Un repaso necesario al feminismo materialista. *Centro de estudios Interdisciplinario sobre las Mujeres, y de la Maestría "poder y sociedad desde la problemática de Género"*, (29), 78-96.
- Fillol, Jessica. (2016ko apirilaren 13a). *Feminismo radical (Radfem) y transfeminismo (Transfem) explicado fácil. O casi*.  
<https://www.jessicafillol.es/2016/04/feminismo-radical-radfem-y-transfeminismo-transfem-explicado-facil-o-casi/>
- Foucault, Michel. (1991). *Las redes del poder*. Prometeo.
- Gamero, Isabel. (2016). Paradojas y retos de los transfeminismos. *Daimon. Revista Internacional de Filosofía*, (5), 415-425.
- Garrido, Carmen. (2021). Repensando las olas del Feminismo. Una aproximación teórica a la metáfora de las "olas". *Investigaciones Feministas*, 12(2), 483-492.  
<https://doi.org/10.5209/infe.68654>
- Gobierno de España. (2021). *Anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*. Ministerio de Igualdad.  
<https://www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Paginas/2021/a-pl-igualdad-efectiva-persona-trans-derechos-lgtbi.aspx>
- Iberley. (2019ko abuztuaren 20a). *El cambio de sexo según la Ley 3/2007, de 15 de marzo reguladora a la reafirmación registral relativa al sexo de las personas*.  
<https://www.iberley.es/temas/cambio-sexo-ley-3-2007-15-marzo-59503>
- Jeffreys, Sheila. (2014). *Gender Hurts*. Routledge.

- La Moncloa. 2021eko ekainaren 29a. *Anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*.  
<https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/Paginas/enlaces/290621-enlace-lgtbi.aspx>
- Laguna, Vanesa. (2015). *Transexualidad y trabajo social. intervención sobre las dificultades en el proceso de socialización y desarrollo personal*. (Trabajo fin de grado inédito). Universidad de Jaén, Facultad de Trabajo Social. España.
- Lewis, Holly. (2020). *La política de todes. Feminismo, teoría queer y marxismo en la intersección*. Bellaterra Edicions.
- López, Noemí. (2020ko ekainaren 24a). Qué está pasando con los derechos de las personas trans en España: de la Q de Queer a la T de Terf. *Newtral*.  
<https://www.newtral.es/derechos-trans-queer-terf/20200624/>
- López, Raul., Deslauriers, Jean-Pierre. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen: revista de trabajo social y ciencias sociales*, (61), 1-19. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3756178>
- Martínez, Ariel. (2015). La Tensión entre Materialidad y Discurso: La mirada de Judith Butler sobre el cuerpo. *Cinta moebio*, (54), 325-335.
- Martínez-Bascuñan, Mariam. (2020). Feminismo. Antón, J. (Ed). *Ideologías y movimientos políticos contemporáneos*. (pp. 495-513). Tecnos.
- Ministerio de Igualdad-Gobierno de España. (2021eko abuztuaren 16a). *Anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*.  
<https://www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Documents/APL%20Igualdad%20Trans%20+LGTBI%20v4.pdf>
- Ministerio de Igualdad-Gobierno de España. (2021). Memoria del anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI.  
<https://www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Documents/MAIN%20Ley%20Trans+LGTBI.pdf>
- Missé, Miquel. (2021). *A la conquista del cuerpo equivocado*. Egales.
- Parrondo, Eva. (2009). Lo personal es político. *Trama y fondo: Revista de cultura*, (27), 105-110.
- Pateman, Carole (1996). Críticas feministas a la dicotomía público/privado. En Paidós, (Ed.). *Críticas feministas a la dicotomía público/privado*. (pp.2-23). Paidós.
- Pita, Salvador., Pértegas, S. (2002). Investigación cuantitativa y cualitativa. *Cad aten primaria*, (9), 76-78.
- Prats, A. (2019ko maiatzaren 22a). *Conceptos básicos del feminismo (radical)*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=Vq0-PQjHVIc&t=9s>

- Preciado, Paul. (2000). *Manifiesto contrasexual*. Anagrama.
- Preciado, Paul. (2008). *Testo Yonqui*. Espasa Calpe.
- Puleo, Alicia. (2005). Lo personal es político: El surgimiento del feminismo radical. *Teoría feminista*, (2), 1-17.
- Rivera, Pablo. (2019). La mirada radical del feminismo. *Pedagogías Emergentes en la Sociedad Digital*, (11), 127-134.
- Salazar, Alonso. (2014). Perspectiva de género en la dogmática jurídico-penal costarricense: ¿Androcentrismo, Ginocentrismo?, ¿Machismo, Feminismo?, ¿Existe algún punto de encuentro?. *Revista Jurídica IUS Doctrina*, (10), 188-222.
- Sanmartín, Olga. (2020ko martxoaren 5a). Feministas históricas, contra Podemos: "Con sus leyes 'trans' ahora nosotras seríamos señores con barba". *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/espana/2020/03/05/5e610bc8fc6c83621d8b45bb.html>
- Santibañez, Daniel. (2018). El concepto interseccionalidad en el feminismo negro de patricia collins. *Resonancias. Revista de Filosofía*, (4), 49-57.
- Taylor, Steve. eta Bogdan, Robert. (1986). Introducción. Ir hacia la gente. Introducción a los métodos cualitativos de investigación. *Buenos Aires: Paidós*, pp. 15 – 27.
- Trujillo, I. (2020ko otsailaren 25a). Estos son los polémicos puntos de la “Ley Trans” que indignaron al Partido Feminista. *La Razón*. <https://www.larazon.es/sociedad/20200225/6q6qyj4pibbvnoqymwyfg33r3a.html>
- Valcárcel, Amelia. (2001). La memoria colectiva y los retos del feminismo. *CEPAL*, (31), 3-34.
- Viveros, Mara. (2016). La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación. *Debate feminista*, (52), 1-17.

## 8) ERANSKINAK

### 8.1 :1.ERANSKINA: INKESTA

#### INKESTA:

**Kaixo, Arantza naiz, Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoko ikaslea eta nire GRALa “lege transa” eta feminismoaren baiaren emandako gatazketaz burutzen ari naiz. Horretarako, zuen laguntza ezinbestekoa zait lana burutzeko. Inkesta guztiz anonimoa da, eta aldi berean, inkesta burututa, baimena emango didazue datuak nire lanerako erabiltzeko. Eskerrik asko! Zalantzarik izan ezkeron nirekin kontaktuan jarri zaitezke helbide honetan: [arantzzamartinez@gmail.com](mailto:arantzzamartinez@gmail.com)/ Hola, soy Arantza, estudiante de Ciencias Políticas y Gestión Pública y estoy llevando a cabo el trabajo sobre la “ley trans” y los conflictos generados en el feminismo. Para ello, vuestra ayuda me es indispensable para llevar a cabo el trabajo. La encuesta es totalmente anónima y al mismo tiempo, una vez realizada, me daréis vuestro consentimiento para que utilice los datos para mi trabajo. ¡Gracias! En el caso de que tengáis alguna duda podéis poneros en contacto conmigo en la siguiente dirección:[arantzzamartinez@gmail.com](mailto:arantzzamartinez@gmail.com)**

#### Inkestatuen datu orokorrak

Adina/Edad:

- 16-18
- 19-21
- 22-24
- 25-27
- 28-30

Nun jaio zara? /¿Dónde has nacido?

- Euskal Autonomia Erkidegoa /Comunidad Autónoma Vasca
- Nafarroako Foru Komunitatea/ Comunidad Foral de Navarra
- Beste Komunitate Autonomo bat / Otra Comunidad Autónoma
- Beste bat/ Otro
- Ez dakit - Ez dut erantzun nahi (ED-EE) (NS/NC)

Nolakoa da zure bizileku testuingurua? ¿Cómo es el entorno en el que vives?

- Landa eremua / Medio rural
- Hiri eremua / Ámbito urbano

- Beste bat / Otro

Zein da jaiotzez esleitu zitzaizun sexua? ¿Cuál es el sexo que se te estableció al nacer?

- Emea / Hembra
- Harra / Macho
- Ez dakit / No lo sé

Zein generorekin identifikatzen zara? ¿Con qué género te identificas?

- Femeninoa / Femenino
- Maskulinoa / Masculino
- LGTBIQ+ (Genero binariotik sistematik kanpoko edozein identitate) / LGTBIQ+ (Cualquier identidad fuera del sistema binario de género)
- ED-EE / NS-NC
- Beste bat/ Otro

Zein egoeratan definitzen duzu zure burua? ¿En qué situación te defines?

- Trans (Pertsona baten genero identitateak bere jaiotzan ezarritako sexuarekin bat egiten ez duenean erabiliko dugu termino hau. Dena den, modu zabalagoan erabiliko dugu termino hau, transexualak, transgeneroak eta travestiak ere sartuko baititugu kategorian honen barnean, generoa aldatzeko ebakuntzarik egin duten hala ez kontuan hartu gabe). / Utilizaremos este término cuando la identidad de género de una persona no coincida con el sexo establecido en su nacimiento. No obstante, utilizaremos este término de forma amplia, ya que incluiremos a las personas transexuales, transgénero y travestis dentro de esta categoría, independientemente de que se hayan sometido a operaciones de cambio de género.
- Cis (Jaiotzean sexu femeninoa esleitu eta emakume gisa identifikatzen diren pertsonak edo sexu maskulinoa egotzi eta gizon gisa identifikatzen direnak.) / Personas que al nacer se asignan el sexo femenino y se identifican como mujeres o se les atribuye el sexo masculino y se les identifica como hombres
- Bat ere ez / Ninguno
- ED-EE / NS-NC
- Beste bat / Otro

Zer jorratzen ari zara momentu honetan? ¿Qué estás tratando en este momento?

- Lanean /Trabajado
- Lanean eta ikastea / Trabajando y estudiando
- Ikasten / Estudiando

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria Obligatoria (ESO)
- Batxilergoa / Bachillerto
- Formakuntza profesionala/ Formación profesional
- Unibertsitateko Gradua/ Grado Universitario
- Masterra / Master
- Doktoregotza/ Doctorado
- Beste bat
- Ez dut lana egiten ezta ikasten ere. / Ni estudio ni trabajo
- Langabezian / En paro
- Beste bat/ Otro

**Datu pertsonalak feminismo eta LGTBIQ+ mugimenduaren inguruan, iritziak eta inkestaturen posturak.**

Feminismoaren alde zaude? ¿Estás a favor del feminismo?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE / NS-NC

Feminista edo feminismoaren aliatua zarela kontsideratzen duzu? ¿Consideras que eres feminista o aliado feminista?

- Bai / Sí
- Ez / No
- ED-EE / NS-NC

LGTBIQ+ kolektiboaren alde zaude edo honen aliatua zara? ¿Estás a favor del colectivo LGTBIQ+ o eres aliado del mismo?

- Bai / Sí
- Ez / No
- ED-EE / NS-NC

Trans kolektiboaren borroka ezagutzen duzu? ¿Conoces la lucha del colectivo trans?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

**Lege aurreproiektua eta transexualitatearen inguruko galderak**

2021eko Espainiar Estatuko “Trans Legearen” aurreproiektua ezagutzen duzu? ¿Conoces el anteproyecto de Ley Trans del Estado español de 2021?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Lege honen aurreproiektuaren inguruko zerbait dakizu? ¿Sabes algo del anteproyecto de esta ley?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE / NS-NC

Honako hau irakurri duzu edo irakurtzeko interesa duzu? ¿Has leído esta ley o tienes interés por leerla?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Beharrezkoa kontsideratzen duzu lege honen aprobazioa? ¿Consideras necesario aprobar esta ley?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Trans kolektiboa kolektibo kaltebera dela uste duzu?/ Crees que el colectivo trans es un colectivo vulnerable?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Trans kolektiboak gaur egun indarkeria eta zapalkuntza pairatzen dituela uste duzu?/ ¿Consideras que el colectivo trans a día de hoy sufre violencia y opresión?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Transexualitatea patologia edo nahaste mental bat dela kontsideratzen duzu?/¿Consideras que la transexualidad es una patología o un trastorno mental?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Zure ustez, beharrezkoa al da sexua berresleitzeko ebakuntza bat egitea Erregistro Zibilean sexua aldatzeko?/¿Crees necesaria una operación de reasignación de sexo para el cambio de sexo en el Registro Civil?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Zure ustez, beharrezkoa da tratamendu hormonal egin behar izatea Erregistro Zibilean sexua aldatzeko?/¿Crees necesario un proceso de tratamiento hormonal para el cambio de sexo en el Registro Civil?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Lege berriaren bidez, haurrek eta nerabeek beren sexua aldatu ahal izango dute erregistro zibilean. 16 urtetik gorakoek legezko tutoreen baimenik edo onespénik gabe egin ahal izango dute. 14 urtetik beherako pertsonen, haien legezko ordezkarien onspénaren eta adostasunaren bidez. 12 urtetik beherako pertsonen izena bakarrik aldatu ahal izango dute, eta ez sexua. Proposamen berri honen alde zaude?/Mediante la nueva ley, los niños, niñas, niños y adolescentes podrán cambiar su sexo en el registro civil. Las personas mayores de 16 años podrán realizarlo sin el consentimiento o aprobación de sus tutores legales. Las personas de edad inferior a 14 años mediante la aprobación y consentimiento de sus representantes legales. Las personas de edad inferior a 12 años podrán solamente cambiar su nombre y no su sexo. ¿Estas a favor de esta nueva propuesta?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Zure ustez, haurrek eta nerabeek helduek duten eskubide bera dute beren nortasuna berresleitzeko?/¿Crees que los niños, niñas, niños y adolescentes tienen el mismo derecho que las personas adultas para poder reasignar su identidad?



- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Genero autodeterminazioaren alde kokatzen zara? ¿Estas a favor de la autodeterminación de género?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

### **Galdera polemiko sorta**

Ezagutzen duzu edo entzun duzu feminismoaren sektore klasiko eta trans baztertzailen arteko gatazka transfeminismoaren eta queer teoriaren aurrean? ¿Conoces o has oído hablar del conflicto entre los sectores clásicos y trans excluyentes del feminismo frente a el transfeminismo y la teoría queer?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

¿Crees que la “ley trans” puede afectar negativamente a las mujeres cisgenero?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Trans kolektiboaren alde ez dagoen pertsona feminista feminista izan al daiteke? /Una persona feminista que no esta a favor o no apoya al colectivo trans puede ser feminista?

- Bai/ Sí
- Ez/ No
- ED-EE/ NS-NC

Ados zaude hurrengo perpausarekin? /¿Estás a favor de lo que dice la siguiente frase?

*“Sexua errealitate bat da, ez du inolako eskubiderik urratzen». Generoa da, sexu-hierarkia eraikitzen duenean, emakumeen eskubidearen aurkakoa.”*

